



San Pedro festak Urritzolan, Arruazun, Unanun, Lizarragabengoan eta Altsasun / 10-14



Arbizu herriak omenaldi polita eta sentitua egin zion Joseba Ezkurdia pilotariari / 18

Atakondoa eskola publikoak gela bat bikoizteko eskatu dio Hezkuntza Departamentuari / 9

Ramos Industrial enpresak bere 50. urteurrena ospatu zuen lankide eta senideen artean / 5-6

Plazaola natur bide berdea irisgarriago bihurtzeko lanak despeditu ditu foru gobernua / 9

Arbizuko plaza estaltzeko toldoa hautsi zuen astearteko euri eta haize erauntsiak / 8

Etxarri Aranatz igoera fasean erori da eta ezin izan dio futbol denboraldiari ginga jarri / 15-16

Ane Campo Flores lakuntzarrak Arabako kopa irabazi du Dulantzi futbol taldearekin / 16-17

Eva Azpilikueta antzele altsasuarrak Iruñean ospatutako Max Sarietan parte hartu zuen / 22-23

SINADURAK

	JAVIER CASTIEG BARANDIARAN / 4
	ANNE AZKONA UNANUA / 22

IANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA / 4



Bidea egiten

25 urte bete ditu proiektu baten zerbitzu ezagunena / 2-3

"Arduratsuagoak dira gazteak. Beste ikuspuntu bat dute"

JOSUNE, LUCI, ENKA ETA MIREIA JAIBUSEKO ARDURADUNAK

Jaibusak bere estreinako bidaia 2000ko garagartzaroaren 24an egin zuen. 25. urteurrena aitzakia hartuta, zerbitzuaren berri jaso dugu

A.A.I. SAKANA

Ibarreko hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateek prebentzio teknikari bana dute: Josune Zabala Ijurko, Luci Gonzalez de Pedrosa Saez eta Mireia Eraso Ormazabal. Eneka Irizar Martinez berriki arte Altsasuko prebentzio teknikaria izan da. Haien ardura da Jaibus. Eta osasun "ona" duela nabarmendu dute.

Zergatik sortu zenuten zerbitzua?

Eneka. Festetan herriz herri asko mugitzeko ohitura dugu. Erriberako *Voy y vengo* zerbitzua ezagutzen genuen. Eta Sakanan halako zerbait egin beharko genukeela pentsatu genuen. Oinarrizko Gizarte Zerbitzu bakoitzak berea antolatu beharrean ibar guztia hartzeko egitasmoa prestatu eta Sakanako Mankomunitateari eskaera egin genion eta baiezkota eman zuen.

Luci. Gu prebentzio teknikariak ere bagara. Jaibus ez da bakarrik joan-etorriak egiten dituen autobusa. Istripu asko izaten ziren, jendea hiltzen zen. Droga edo alkoholaren kontsumoaren lotuta dauden istripuak murriz-

tea da helburua. Gauean festetan halako kontsumoak badaudelako.

Josune. Erriberako zerbitzuak indarra hartu zuen, eta oso balorazio ona zuen. Corellakoekin bildu ginen. Gure berezitasunekin jarri genuen martxan. Azken helburua da jendea parrandatik etxera ongi iristea.

Mireia. Zortekoak zarete. Gipuzkoan ez dago Jaibusik. Herri txikietakoa bada, jendea taxian mugitzen da. Gertu dauden herrien artean patinetean doaz. Bestela Lurraldebusen autobusak. Baina bidaia aprobetxatzen da botiletako alkohola edateko. Jaibusean ezin da alkoholik sartu. Hemen jendea zu zaintzen dago.

Beraz, arrazoiak mantentzen dira.

J. Bai. Mank-ek Osasun Departamentutik jasotzen duen dirulaguntza ez da bakarrik autobuserako. Jaibusaren inguruan prebentzio kanpainak egiten ditugu. Istripuak ekiditzeaz aparte, kontsumoen autokontrola edo gehiegizko kontsumoaren arriskuaren ingurukoak lantzen ditugu. Hori guztia beharrezkoa ikusten dugu. Herrietako gazteekin bil-

du edo kanpainako materiala banatzean aitortzen dute sentsibilizazio lan hori egitea beharrezkoa dela.

Aurtengo kanpaina, zer?

J. Instagram sare sozialeko Jaibusaren profiletik (Jaibus_Sakana) jendea juergan ateratzen denean osasuna eta zaintza bulkatzeko kanpaina batekin hasi ginen joan zen urtean, eta horrekin jarraituko dugu. Horretaz aparte, udan, 15-16 urteko gazteengana eta haien familiengana zuzenduko gara. Aisialdia kontsumoekin eta sare sozialen erabilera okerrarekin lotuta dagoela landuko dugu. Horretarako aisialdi osasuntsuagoa sustatuko dugu. Gurasoei baliabide batzuk emanen dizkiegu familian landu ditzaten.

Sare sozialak ere kontsumo bat bihurtu dira.

J. Hala da. Mendekotasuna sortzen du. Hor lana dugu egiteko. Batzuetan beste kontsumoekin ere lotuta dago.

Jarritako helburuak betetzeko zerbitzu baliagarria da?

L. Jaibus ez da bakarrik autobusa. Jaibus proiektuko bali-

bide bat da. Baina hor daude ere: familiekin egindako lanketak, egiten ditugun kanpainak, gazteekin lantzen duguna edo ikastetxeetara joaten garenekoa.

J. Auto istripuen prebentzioa momentuan eta aurretik ere egin behar da.

E. Jaibusari ez diogu bakarrik meritua emanen, baina Jaibus dagoenetik oso jende gutxi ikusten da auto-stop egiten. Eta kontzientzia hartzea dago. Jaibusik ez dagoen festetan gazteek hitzarmena egiten dute: "gaurkoan batek ez du edango eta hark autoa bueltan eramane du". Kontzientzia hartze hori lortu da.

Taxiak gaez ere badabilta. Eta gurasoak joan-etorrian.

J. Hausnarketa hori badago. Kanpainen askotan aipatu dugu: zerbitzu publikoak erabili. Kanpaina batzuetan taxilarien telefonoak ere eman genituen. Bestetik, festara autoan joan baina autoa herrian utzi eta Jaibusean bueltatu. Jaibus 21 egunetan aterako da, baina kontzientzia hartzea urte guztirako izatea nahi dugu, parrandaren ondoren modu egokian mugitzea. Prebentzioaren ikuspegitik garrantzitsuena zaintza da. Gazteekin ere hori lantzen dugu. Zaintza norberarena. Baina ondokoak zaintzea ere.

Edozein igo daiteke Jaibusean?

E. Prebentzio programak antolatzen duelako ditu Jaibusak baldintza batzuk: 16 urtetik beherakoek ezin dute hartu, 16 eta 17

urtekoek gurasoen baimena behar dute eta txartel bat eskatu behar dute beraien Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen egoitzan. 18 urtetik beherakoek ezin dute kontsumitu, ezinen liriateke tabernatan ibili. Baina dugun errealitatea beste bat da, eta Jaibusaren bitartez arazo batzuk ekidin nahi ditugu.

L. Familiei ere laguntza eskatu behar diegu. "Jaibus dago eta joan daitezela han", esaten dute. Baina adin batzuetan ez da komeni. 14-15 urteko gazte bat goizeko 7ak arte egotea behin eta berriro... Ikusten dituzun gauzak normalizatzen dituzu. Guretako hori ez da komenigarria. Zaindu beharra dugu. Seme-alabak 14-15 urte baditu, behar bada zuri dagokizu haren bila joatea eta ikustea zer dagoen. Gu familiekin elkartzeko gara, Jaibusaren helburua zein den pixka bat lantzen dugu haiekin. Kontzientzia lana egiten dugu. Azken finean, gurasoak dira arduradunak. Haiek erabaki behar dute zer, nola eta noiz erabiliko duten seme-alabek Jaibus.

E. Familiari dagokio mugak jarzea. Txartela egitera etortzen direnean gomendio orri bat ematen diegu etxera eramane eta irakur dezaten seme-alabekin. Bestalde, helburua da 18 urtetik beherakoek ezin erabili izatea. Beste toki batzuetan gertatzen ari da, eta Nafarroako Gobernua hori agintzera iritsiko da. Ezin da ahaztu prebentzio programatik sortzen dela.

L. Heldu den urtean 16 urte beteak izan beharko dituzte Jaibusera igotzeko.

J. Orain urtean 16 urte betetzen duenak erabil dezake. Lege bat dago hori arautzeko.

Erabiltzaileen profila aldatu da?

J. Emakumezkoek beti gehiago erabili dute, baina gaur egungo aldea bezain handirik ez zegoen. Adinari dagokionez, esandakoa, 15 urtekoendako zerbitzua ez da. Aldi berean, helduagoak Jaibusera erabiltzera bulkatzen saiatzen gara. Jaibus erabiltzeko ez dago adin toperik, edozeinek erabil dezake. 16 urteko erabiltzaile

Datuak

- **2025an** 21 egun.
- **Joateko** 23:00 eta 24:00.
- **Bueltatze**ko 03:00, 05:00 eta 07:00.
- **8.000** erabiltzaile inguru 2024an.
- **Gehienek** astebururo erabiltzen dute.
- **18 urte** Gehien erabiltzen dutenak.
- **%60** emakumezkoak dira.



TALLERES GOÑI TAILERRAK



- Ibilgailu guztien txapa konponketa eta margoketa
- Errotulazioak
- Jaso eta etxera eramateko zerbitzua



Akaborro II industrialdea • IRURTZUN • 680 859 938 • 948 500 166 • chapigo@gmail.com



Luci, Josune, Eneka eta Mireia.

horiek gutxitu eta bidaiari helduagoak nahi ditugu. Eta beti dago kopuru bat autobusean festara joan ez dena, baina Jaibusean bueltatzen dena. 25 urte-tik gorakoak ere badaude. Hori da gure helburua.

L. Jaibus ez da bakarrik gazteendako. Hori mito bat da. Denondako da. Gazteak dira festetara gehien ateratzen direnak, bai. Baina zerbitzua adin guztiendako da. Berdin da zenbat urte dituzun. Behar baduzu, erabili. Horretarako da.

E. Lehen dena gazteak ziren. Autoa festak diren herrian uzten dugula, Jaibusean bueltatu eta ondoren autoaren bila joaten gara. Aldaketa hori izan da, gero eta jende gehiagok egiten ditu halakoak. Edo atera ez den kuadrillako kidea goizean haien bila joatea.

J. Edo lineako autobusetan joatea festetara, Jaibusaren joaneko ordutegiak berandu direlako batzuek. Gazteen, familien eta Mank-en balorazio orokorra oso-oso ona da. Hobetzeko zer dagoen galdetzen dugunean beti gauza bera erantzuten dute: denbora asko itxaron behar da; jende asko dago, igo ezinik gelditu behar dugu eta autobusak berriro buelta egin arte itxaron... Hori hobetzeko saiatzen gara ahalik eta zerbitzu gehien eskaintzen egun bakoitzean. Itxaroteara arazoa ez izateko, aurtun auto-

busean joaten den arduradunak Instagram bidez jakinarazten du autobusa zein herritan dagoen, eta zenbat denbora barru iritsiko diren jakinarazten du. Instagram bidezko inkesta ere egiten ari gara, beraien balorazioak jasotzeko. Ez itxoiteko denboraldi bukaerara haien iritzia berri izateko. Hala, garagarrilean zerbitzu pasaz gero garilean aldatzen saia gaitezke.

L. Instagramen bidez edozein momentuan egin dezake galdera: "non zaudete?" Gazteek ezagutzen dute Instagrameko profila.

Zenbat autobus ibiltzen dira norabide bakoitzean?

E. Festaren arabera. Lau jaibus ibiltzen diren lau egun daukagu, hiru autobus ibiltzen diren bost egun eta bikoak dira gainerakoak. Hori etengabe aldatzen da.

Gazteei entzundakoa: "Jaibusaren sartzeko ukondoka ibili behar izan dugu". Gurasoei entzundakoa: "seme-alabari 03:00etako autobusa 'pasa' zaio eta 05:00etan haren bila joan behar izan dut".

J. Zerbitzuak gaizki funtzionatzen badu, beti onartzen dugu eta sentitzen dugula esaten dugu. Hobetzen saiatuko gara jakinarazten dugu. Baina deitu izan dute gurasoek esanez 03:00etako eta 05:00etako autobusak ez direla pasatu, bakarrik 07:00etako pasa dela. Arduradunek datuak jasotzen dituzte eta horretan oinarrituta ematen ditugu eran-

tzunak. Bai, gazte batzuk Jaibusarena parranda luzatzeko aitzakia gisa erabili dute. Bestalde, orain autobusa noiz iritsiko den jakinaraziz, arriskua ekidin nahi dugu. Autobusa iritsi eta jende pila bat zain badago, bulkadak egon daitezke. Arduradunak lanak izaten dituzte igoera antolatzeko.

E. Iritsi ahala sortutako ilara errespetatzea eskatzen dugu, beste lekuetan bezala. Baina Jaibusean, gauez, parranda giroan, askotan indartsuenaren legea nagusitzen da.

L. Hori konpontzeko azken egunean Jaibus bakoitza zer herrietara joaten den zehaztu genuen. Hala ere, zaila da. Ordu horietan jendea etxera joateko gogoz dago, eta halakoak gertatzen dira. Batzuetan bi autobus gutxi dira, baina horretarako ematen du daukagun aurrekontuak. Gure kezka beti da: egun gutxiago eskaini eta daudenetan autobus gehiago? Egunak kentzea oso zaila da. Batzuk finkoak dira. Kenduz gero zerbitzu gertatzen bada?

J. Kontuan izan: autobusa betetzen bada, autobusak berriz bueltatu behar du. Autobusek behar diren buelta guztiak egin behar dituzte. Inor ezin du zerbitzurik gabe utzi. Gertatzen da betetako autobus hori bere ibilbidea egin eta berriro geltokira bueltatzen denerako jendeak alde

egin duela. Berez, ezin du inor geltokian utzi.

E. Bueltatze hori izan daitezke 50 minutu. Jendea itxarotiaz nazkatzen da eta gurasoei edo norbaiti hots egiten dio. Arduradunek esaten digute: "halako herritan hamabost pertsona utzi genituen eta bueltatu ginenerako ez zegoen inor". Horretarako dago Instagrameko aukera hori. Autobusak bere mugak ditu. Kontziente gara. Jaibus antolatzea ez da erraza. Balorazioetan ordutegiak aldatzea jasotzen bada, horrek lana dakar. Eta aurreikuspenak egin eta gero ez da betetzen. Esaterako, jendea herri honetara joan da jendetsuagoa delako, baina beste batean kontzertu bat dago eta... Jendeak uler dezala gehienetan atzerape-nak daudela. Erabiltzaileek itxa-

"21 EGUNETAN ATERAKO DA, BAINA KONTZIENTZIA HARTZEA URTE GUZTIRAKO IZATEA NAHI DUGU"

"GAUR EGUN EZ DA IRUDIKATZEN HERRIKO FESTA EDO UDA BAT JAIBUS ZERBITZURIK GABE"

ron behar diote autobusari, ez autobusak erabiltzaileak.

Ohiturak aldatzen ari dira. Arratsaldean parrandan ibiltzen direnendako Jaibus beharko litzateke?

E. Garraio publikoaren ordutegitik kanpo jartzen da Jaibus. Beraz, helduak ateratzen garenean hitzarmenak eta halakoak egin beharko ditugu. Edo kontrolatu. Hori ere gure esku dago. Beti irteera eta kontsumo lotzen ditugu. Baina beste errealitate batzuk ere badaude.

L. Gazteak gu baino arduratsua- goak dira. Beste ikuspuntu bat dute. Hurrengo egunean zerbitzu egin behar badute bezperan ez dira hainbeste ateratzen. Edo esaten dutena: "chill eran aterako naiz gaur". Helduok arazo gehiago ditugu. Helduen artean ez dut halako jarrerarik ikusten. **Autobus gidariak aparte, arduradunak ere joaten dira Jaibusean.**

J. Oso figura garrantzitsua da. Derrigorrezkoa da autobusean arduradun bat egotea. Erriberan ez da ohikoa. Beste toki batzuetan segurtasuneko pertsona bat jartzen dute. Guretako arduradunak hezitzailea izan behar du, ez polizia lanak egiten dituen.

Zer egiten dute?

J. Txartelak kobratzen dituzte. Baina garrantzitsuena da autobusean giro ona edo lasaia egotea. Bakarren batek arazoren bat badu, bitartekari lanak egitea. Batzuetan kanpainetako materiala banatzen du. Gidaria ere pixka bat babesten du. Egon izan da errespetu faltaren bat. Ez da zaintzailea, bitartekari bat da. Guri informazio asko ematen digute.

Zer etorkizun du Jaibusak?

J. Ona. Behin bertan behera gelditu zen zerbitzua eta familiak eta gazteak mugitu ziren. Zerbitzua berreskuratzeko antolakuntza izan zen. Eskertu genuen. Haiendako ere garrantzitsua izan zen: "zerbitzu nahi badugu zaindu egin behar dugu" ikusteko. Azken urtetan zerbitzu txikia gertatu bada, idatzi bat prestatu izan dugu arduradunek autobusean irakurtzeko. Horrela saiatu gara ideia bat zabaltzen: "hau denona da, eta denok zaindu behar dugu zerbitzu hau". Azken finean, denon artean egiten dugu Jaibus. Gaur egun ez da irudikatzen festa edo uda bat Jaibusik gabe. Gure helburua hobetzea izan behar du.

L. Erabiltzaileei eskerrak eman beharra dugu.



ASTEKOA

JAVIER CASTEIG BARANDIARAN

Txin txin...

Txin txin... diruaren hotsa.

Aurreko astean Cerdanen dimisioaren berri izan nuenean, pentsatu nuen lehenengo gauza Madrilen sortzen diren kanpainen beste atal besterik ez zela, beste fake-a. Baina, jarraian, prentsaurrekoak eta adierazpen horiek guztiak adituta, beste zerbait zela ulertu nuen eta ez edozein gauza, zerbait larria baizik.

Ondorengo egunetan, berri gehiago argitaratu ziren, zein baino zein larriago eta lerro hauek nik idatzi eta zuek irakurri bitartean, batek daki zer ez dugun jakinen eta ondorioak zeintzuk izan daitezkeen.

Puntu honetaraino iritsita, pentsatu beharko dugu nolatan den posible, hiru tipo horiek beste munduko formakuntzarik gabe, heldu daitezkeen politikagintzan, goiko postu horietaraino eta halako botere izateraino. Eta halako dirutzak kudeatzeraino. Eta inork ez daki ezer eta ez da ezertaz ohartu...Harrigarria.

Ondorioak, auskalo, baina ez da batere buruargi izan behar ulertzeko Madrilgo eta Iruñeko gobernuak kolokan daudela eta bide batez, Iruñeko Udala eta, ziurrenik, beste zenbait udal.

"SAIHESTEKO NEURRI GUZTIAK HARTU BEHAR DIRA, ITUNETAN LEHENTASUNEZKO IZAN BEHAR DIRA"

Eta gobernuak eta udal horiek erorita zeinen esku gelditzen diren jakina da. Hemen, Nafarroan, ez dago beste aukerarik, eskuina edo gainontzeko guztiak, era batera edo bestera.

Zoritzarrez, urtetan eta urtetan, eskuinik gabeko

gobernua amestu dugunok, aurki gaitzke berriz ataka berdinean, eta aurreko aldian bezala, urtetarako. Basamortuaren zeharkaldia bezalakoa. Latza.

Orain arte, ustelkeria kasuak ugariak izan dira, eta, nik uste, horrelakoak saihesteko neurri guztiak hartu behar direla eta edozein itunetan lehentasunezkoa izan behar direla. Bestela, politikari guztiak eta alderdi politiko guztiak berdinak direlako ustean erortzeko arriskua dago, eta sinismen horretan erorita, betikoak galtzaile, herritarrok.

Eta, gainera, ez da egia; alde horretatik bi mota daude; diruaren hotsari jarraitzen diotenak eta bereari eusten diotenak.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteartea 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna, eta... aterpea?

SAKANAKO ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Ekainaren 20an, Errefuxiatuen Nazioarteko Egunean (ENE), giza eskubideetan atzerapauso handia emanen dugu. Hona iritsi eta bizitza salbatzeko ahaleginak egiten dituztenen aurkako errepresioa eta indarkeria areagotuko duen Migrazio eta Asilorako Europako Itunaz gain, Atzeritartasun Legearen Araudiaren azken erreforma hemen da, iritsi direnak gehiago zigortzeko.

Itunak Europara heldu nahi dutenen aurkako errepresioa kanporatu, asilorako eskubidea babesa behar dutenen kriminalizazioa areagotzen ditu.

Ondorioz: pertsonak desagertzea eta hiltzea; iritsiera galaraztea; eta,

iristekotan, lehenbailehen kanporatzea. Geratzen direnekin, aldiz: jatorrizko herrialde eta egoera administratiboaren arabera zein izango diren herritarrok eta zein kriminalizatuak, dikotomiari aurre egin beharra.

Legedi xenofobia da, eta pertsona errefuxiatuek eskubideez eta bizitza duinez gozatzea oztopatzen du.

Mundu mailan desplazatuak kopurua gora doa. 123 milioitik gora, 2024an.

Aipamen berezikoa da Palestinako genozidioa: 55.000 eraildakotik gora. 1,9 milioi desplazatutik gora, eta eskasa den nazioarteko erantzunarekin.

Nafarroan, 1.441 asilo eskaera izan ziren 2024ean. 2025ean kopuru hori dezente jaitsi da, 496 eskaera, orain arte.

Historiaren alde batean edo bestean jar gaitzke: nola bermatu eskubideak eta harrera eredu duinak errefuxiatuen zaurgarritasuna areagotzen duen araudiarekin?

Ahotsa goratu eta:
-Migratzaile eta errefuxiatuak bizitza arriskatu gabe hona iristeko legezko bide seguruak bermatu behar ditugu.

-Europako eskuin-muturreko politiketatik urrundu.

-Adingabe asilo eskatzaileei estatuko harrera sisteman sarbidea bermatu.

-Modu normalizatuan errolda bermatu.

-Diskurtso diskriminatzaile eta xenofoboei aurre egin.

-Armen salerosketa gelditu...

Guztiok toki segurua izateko, bizitza proiektua garatzeko eta oraina duintasunez bizitzeko eskubidea baitugu.



OBJEKTIBOTIK

Gurpilendako atsedena

Zer begiratzen duzu? Zer pasatzen da? Akaso nik ere ez dut gurpilik? Akaso hau ez da aparkaleku bat? Ba, hori, zergatik ez naiz ni ere hemen geldituko atsedean hartzen. Badakizu zenbat ibiltzen naizen aurrera eta atzera ikasturtean zehar? Eta ez dakizue ongi zer dudan aurretik! Uda!!! Nik ere indarrak berreskuratzeko beharra dut.



ARTXIBOA


www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
Maidier Perkaz Urdiain
maidier@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Lege gordailua:

NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245
Itziar Gastearna Colmenero
publizitatea@guaixe.eus
619 821 436

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

A.A.I. ALTSASU

Bost hamarkadako ibilbidea ospatzeko ekitaldia hartu zuen Altsasuko lantegiak. Aukera baliatu zuten enpresan jubilatutak diren eta bertan 25 urte baino gehiago daramaten langileei aitortza egiteko. Sortzaileetako bat, Juan, duela lau urte hil zen. Leitzak erretiro erdia hartua du. "Baina gustura etortzen naiz". Berak gidatu gaitu enpresaren joan-etorrietan.

Nola sortu zen enpresa?

Bi sozio izan ginen. Juanek Altsasun enpresa zuen eta motorrak bobinatzen zituen (erretako motor elektrikoetako kobrea kendu eta berria jarri). Nik Arbizon enpresa nuen eta bobinatzea eta industriarako instalazio elektriko berriak eta mantentze lanak egiten nituen. Bata eta bestea zerotik hasi ginen. Juanek nik baino bi urte gehiago zituen eta autonomo gisa urte gehiago zeramatzan lanean. Nik ofizioa Legazpin, Patricio Echeverriari, ikasi nuen, eta han bederati urte eta erdi egin nituen lanean. Soldadutza bukatu ondoren Legazpin sei hilabete edo egon nintzen. Ordurako honutz etortzeko ideia nuen, mugimendua egon zitekeela ikusten nuen, Gipuzkoa aldetik enpresak etortzen hasi ziren. Erabakia hartu nuen. Legazpin lan egin zuen lagun altsasuar batek Juan ezagutzen zuen eta nire berri eman zion. Eta Juan nire bila etorri zen. Zer ideia zuen azaldu zidan. Hark garbi ikusten zuen bobinatzea kontrolatzen zuela, eta nik bobinatzea eta instalazioak. Garai hartan enpresetan horiek ziren premiak. Elkarren osagarri izan gitezkeen. Eta bat egin genuen. **Kafia nonbait jarri behar da...**

"Teknologiak aplikatzeko base ona duen jendea behar da"

PATXI LEITZA BERASTEGI RAMOS INDUSTRIALEKO SORTZAILEA

Juan Ramos Holgadorekin batera abiarazi zuen enpresak 50 urte bete ditu.

Larunbatean 200 pertsona baino gehiago enpresan bilduz ospatu zuten urteurrena

Altsasun. Gainera, garai hartan industriaren aldetik Altsasun mugimendu gehiago zegoen. Etxarrin zerbait zegoen, baina Arbizon ez zegoen industriarik. Zeren zegoena, garai bateko laminazioa, Olatzea ixtear zen.

Bezeroak, hasieratik Sakanakoak? Edo kanpokoak ere?

Sakanakoak genituen. Arabako bezero batzuk hartzen hasi ginen. Uharte Arakildik Araiarraino zen gure eskualdea.

Pitteka-pitteka lan arlo gehiagotara zabaldu zen enpresa. Nola ohar-tu zineten horretaz?

Egunerokoak ematen zuen esperientziarekin ikusten genuen zerbitzu osagarri batzuk emateko aukera zegoela hemen. Industria ez da bakarrik instalazioak egin eta ondoren mantentze lana egin. Ez da hor bukatzen. Hor

daude sistema hidraulikoak, pneumatikoak, industria hornidura. Hortik erantzuna emateko falta zegoela ikusten genuen. Gipuzkoa aldetik hona saltzera etortzen ziren. Hankultura hemen baino aurreratuagoa zuten. Enpresa batzuk kenduta, porlandegia eta gutxi gehiago, orduan hasi ziren hemen enpresak jaiotzen. Eta industriari zerbitzu osagarriak eman nahi genizkion, eta horietan hazten hasi ginen. Ikuspegi pixka bat izan. Industriak zer behar zituen ikusi. Berez, hori da.

Zein izan zen hiruetan lehena?

Mantentzean lan egiten zutenekin Bordeleko feria batera joan ginen. Motor batzuk ikusi nituen eta haietako bat bobinatzen ari ziren. Ofizioak tiratzen du eta han zegoen mutiko batekin hiz-

ketan egon nintzen. Zakar bobinatuta zegoela iruditu zitzaidan eta esan nion. "Esperientzia gehiegi ez dugu. Urtetan egon diren langileak jubilatzen joan dira, eta orain berriak ari gara". Bordelen bobinatzeke zenbat tailer zeuden galdetu nion eta bakarria zegoela erantzun zidan. Horrek pentsatzeko bidea eman zidan. Bordele moduko hiri batean bakarria zegoen bitartean gure inguru honetan bost geunden bobinatzen. "Zer ari gara gaizki egiten?" Gauzei bueltak ematen hasi eta ikusten zen eskulana garestitzen hasi zela. Bordeleko hark esan zidan hiruzpalau zaldira arteko motor estandar berriekin lan egiten zutela. Hainbeste motor normal bobinatu beharrean motor berriak stockean izaten hasi ginen. Eta jendeari

motor berriak eskaintzen hasi ginen. Hasiara batean nahikoa arraroa zen: "orain arte bobinatu, eta orain esaten duzu motor txikia behintzat berria izan behar duela?" Baietz, ia-ia prezio bera zutela erantzuten nien. Garestixeagoa zen, baina motorra bobinatu, errodamenduak aldatu eta beste egin behar badiozu... motor berria. Motor txikiekin hasi ginen eta handitzen joan zen. Gaur egun 50 zaldi eta gehiagoko motorrak ez ditugu bobinatzen. Bereziak daude, bi abiaduratakoak, ardatz luzeak, pependako... Horiek oraindik bobinatzen ditugu. Baina langile bakarria aritzen da. Lehen lauzpabost. Gainerakoan, saldu. Eta gauza batek beste ekartzen du.

Non zenuten lantegia?

Altsasuko Zelai kaleko 40. zenbakian. Espazioa nahiko mugatua genuen bobinen erabiltzeko eta orga jasotzaileen beharra genuen, karga gehiagoko gauzak jasotzen hasi ginelako. Isasia industrialdean lursail bat hartua genuen, baina hura legeztatzeke nahiko arazo izan ziren. Bitartean lantegi hau (Razesa izan zena) enkante bidez salgai jarri zuten. Autobia egiten ari ziren. Juani ez nion ezer esan. Autobiatik Altsasurako sarrerara etorri nintzen, biribilgunea dagoen tokitik begiratu eta pentsatu nuen lantegi hura hartu beharra genuela. Berehalakoan Juanengana joan eta nirekin etortzeko esan nion. Hara igoarazi nuen, lantegia ikusi eta hura erosteko ahal zen guztia egin behar genuela esan zuen. Lortu genuen. Lantegi berriak aukera eman zigun stock handiagoa izateko, denda. Beste egitura bat eman genion. Denboretan ere automatizazioan aritu gara, baina beste batzuetarako. Esaterako, Talleres

JARRAI GAITZAZU INSTAGRAMEN !!!

eta horrela gure produktuak ezagutuko dituzu, nola egiten dugun lan, gure dendak eta salmenta puntuak... Baina hainbat lehiaketetan ere parte hartuko duzu, promozioekin onurak izan, ideia handiak... eta askoz gehiago ere.



Amaya

OGITEGIA
ZARLEKIN 1964 - GERALEKIN

Muñozendako. Haiek zati mekanikoa egiten zuten eta guk elektrizitatez, robotikaz, programez eta automatekin eta halakoekin hornitzen genituen. Hura beste enpresa batek hartu zuen eta berehala barratu zen. Ordurako gu geu hasteko prest geunden. Ideiari bueltak ematen ari gintzaizkion: "zergatik ez dugu guk geuk egiten?" Eta, mekaniko batzuk hartuta, guk makina horiek integratzen hasi ginen.

Elektrizitate instalazioetatik automatizazioa pauso bat da, eta hortik robotikara jarraian.

Hori da. Instalazioekin eta beste batzuetarako automatizazioekin 50 bat langile inguru genuen. Momentu honetan 102 edo 103 gaude.

Robotak egin eta neurria eskaintzen ari zarete.

Batez ere orain enpresak industria prozesuetarako behar dituzten makina berezien proiektuak egiten ditugu. Guk diseinatu eta muntatzen dugu programa. Eta robotak behar baditu, robotak.

Horretarako zer langile mota behar duzue?

Gaur egun industriak prestakuntza ona exijitzen du. Jende oso profesionala behar da. Hogeitabat ingeniari daude hemen, diseinatzen eta prozesuak egiten. Lizarran Ega Robotics dugu, han beste 22 lagun daude. Iruñean Koiote inteligencia industrial dugu, eta han sei ingeniari daude. Horiek industria prozesuak nola bideratu aztertzen dute. Adimen Artifizialarekin beste pauso bat ematen ari dira.

Eguzki instalazioetan ere sartu zarete.

Beharbada ez da gure indargunea, baina instalazio handi batzuk egin ditugu enpresa batzuetan.

Nahikoa espazio baduzue?

Langileria hau guztia mantentzeko gehiago zabaldu beharra dago. Ondorioz CAF, Irizar eta GHrekin lanean ari gara. Atzerriara joan gara bertan dauden enpresa batzuk Frantziarrak direlako.

Egunean egoteko azokak ezinbestekoak?

Asko joan gara. Batez ere teknologiaren garapena nondik nora doan ikusteko. Zeren hemen denbora gutxian atzeratuta gelditzen zara. Teknologia izugarriko abiadan doa. Azkenean, apustu bat zegoen: bolumen bat badugu, eta honekin gelditzen bagara, oso zaila da espezialista onak egitea. Programatzen zaz-



Juanek bobinatzen zuen motor modeloetako bat enpresaren ikur bihurtu da.

"ESPERIENTZIAREKIN IKUSTEN GENUEN ZERBITZU OSAGARRI BATZUK EMATEKO AUKERA ZEGOELA"

"BEZEROEN ESKUTIK HARTUTA JOAN BEHAR DUZU. HAIEN PREMIAK ETA GUK DUGUN ESPERIENTZIA"

pi bat lagun ditugu. Lan gutxiago baduzu, momentu batean ez diozu erantzunik ematen. Teknologia ez dira erabat desberdinak, baina marka bakoitzak bere gauzak dauzka. Eta marka bat ongi kontrolatzen duen batzuk ditugu, eta beste batzuk beste bat. Kontrolatzeko. Bestela oso zaila da jende batek programatzea eta beste gauza bat egitea. Azkenean espezialitate bat hartu behar du bakoitzak. Teknologia aplikatzeko base ona duen jendea behar da.

Aurrera bakarrik egin duzue, edo bazkideekin?

Bezereen eskutik hartuta joan behar duzu. Haien premiak eta guk dugun esperientzia. Adibidez, esateko: "bide horretatik, beharbada, ez. Hemendik". Bezeroa eta hornitzaile harremana baino zerbait gehiago izan behar da. Enpresak langileekin duen bezala. Gure balioa langileak dira. Ona behar du. Eta ilusioa izanez gero, gauzak egiten dira. Bestela, noizbait aldi baterako enpresen elkarteren bat egin dugu bolumen handiko zerbaiti erantzuteko. Bestela, dibertsifikazioa dugu, plus bat da. Enpresa batekiko izanen dugun mendekotasun handiena %12-14koa izanen da. Gauza handia da. Enpresa batek kale egiten badu eta hau ez da hankaz gora joaten.

Munduan hainbeste kontu egonda, zein da merkatuaren panorama?

Egia esan, momentu honetan ez gaude punturik altuenean. Praktikoki behean gaude. 50 urte hauetan beti ezagutu ditugu gorabeherak. Altsasu eta Olatzagutia urgentziatzeko berrindustrializazio eremuak izan ziren. Orduan ere gauza gogorak etorri ziren. Momentu honetan ere ez daude batere ongi. Gerrekin beti arazoak sortzen dira. Gerria izan behar da, batera eta bestera mugitzeko gaitasuna izateko.

Zein erronka dauzka Ramos Industrialek?

Gutxienez beste 50 urte betetzea (barrez). Baina, nork daki zer espero daitekeen hemendik 50 urtera? Ez da erraza. Robotek eskulana kenduko dute, baina haiek programatu, jarri eta mantendu beharko dira. Hor merkatu-hobi handiak daude. Baina, hori bai, gero eta prestakuntza hobea behar da. Pentsaera zabalagoa izan beharra dugu. Egunetik egunera gauza berriak daude.

Ramosetik ere enpresa bat behintzat sortu da, Permagsa. Zer suposatzen du horrek zuendako?

Hemen sortu zen eta urtetan hemen izan genuen proiektu bat izan zen. Desberdintasuna ematen zigun. Tokiz nahikoa justu genbiltzan. Asierrek (semeak) kudeatu zuen proiektu hori. Aukera ikusten zuen. Akordio batera iritsi ginen eta enpresa Etxarrin dago orain. Horiek pitteka hazten ari dira. Teknologian buru dira. Gauza berriak aurrera ateratzea asko kostatzen da. Hura ateratzea izugarri kosta zitzaigun.

Enpresak 50 urte bete dituela ikusteak zer sentitarazten dizu?

Poztasun handia. Baina ikusten dut enpresak ardura handia duela. Ehun langile, familia. Ardura gainera etortzen zaizu. Baina ni ardurak uzten ari naiz. Pedro Latorrek du gerentzia orain. Telekomunikazioen ingeniaria. Ikuspegia badu, ilusio handia du. Enpresaren parte da bai bera, bai langile guztiak. Esaten diet: "hau guztien artean mantendu beharra dugu. Hau ez du zuzendaritzak bakarrik mantentzen".

Urteurren ekitaldiko aitortzak

25 urte baino gehiago daramaten langileei

Carlos Aristorena, Jesus Viedma, Garikoitz Arretxe, Cesar Amezarai, Jorge Martinez, Jesus Mari Mendinueta, Felipe Troyano, Iñaki Rodriguez, Itziar Etxandia, Javier Tuero, Jose Claver, Cesar Otxoaerrarte, Alfredo Urkijo eta Roberto Ramos.

Erretiratutako langileei ere omenaldia

Ignacio Morentin, Joxe Ramon Petriati, Fernando Irisarri, Juan Jose Florencio eta Cesar Gorriz.

Sortzaileei aitortza

Antonia Chaparro (Juanen alarguna), Roberto Ramos (semea), Patxi Leiza eta Maria Pilar Razkin (Patxiren emaztea).



EKAINAK 28

LGTBI+

**HARROTASUNAREN
NAZIOARTEKO EGUNA**



Iván
58 urte

ANIZTASUNEAN HARRO



Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



Instituto Navarro para la Igualdad



Nafarroako Berdintasunerako Institutua

NAVARRA † NAFARROA

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

Plaza estaltzen duen toldorik gabe gelditu dira Arbizon

Euri erauntsia izan zen Arbizon astearte iluntzean. Plaza beteta zegoen eta arbizuarrak afari-merendua jaten ari zirela, erauntsia lehertu zen. Euriarekin batera haizea. Plaza estaltzeko udalak toldoa jartzen du, erdian eta aldeetan euskarriekin lotuz. Haizearen indarrak karrika aldeko toldoak hautsi zituen eta toldoa laso utzi. Zorionez ez zuen inork minik hartu. Haizeak jotzen zuen bitartean, eta kalte handiagoak ez sortzeko arbizuar talde batek toldoari eutsi zion. Erauntsia pasata, toldoa erdiko postearen kontra bildu zuten. Hura gabe pasako dute festak. Aurrera begira zerbait pentsatu beharko dutela azaldu dute udaletik.

Altsasuko ezkilak bi egunez mutu egon dira

Herenegun, atzera ere, eguerdiero moduan ezkila errepika entzun zen Altsasun. Baita ordua adierazteko danbadak ere. Baina aurreko bi egunak mutu egon ziren. Domekan piztu zen alarma, eta suhiltzaileak 18.00etan ezkila dorrera igo, egoera aztertu eta ezkilan behin-behinean lotu eta geldiarazi zituzten. Arazoak hegoaldera ematen duen ezkila handiari eusten dion habearekin zuen zerikusia. Hura paretako zulo batera sartzen da. Ziri batzuekin ziurtatuta zegoen, baina haietakoren bat erori eta behar baino "dantza gehiago" egiten zuen ezkilak. Habeari eusteko metalezko txapa batzuk jarri dituzte paretan.

Aralarko Trinitate ermita berri dute

Trinitate eguneko ospakizunean mustu zuten, hilaren 15ean. Erretaula zaharreko piezak zaharberrituta sortu dute berrikoak. Kanpoko hesiaren eta erretaularen artean kristalezko paret bat jartzea falta da

UHARTE ARAKIL

Aralarko santutegitik aldameko Trinitate ermita zaharberritu egin dute. Horretan aritu dira Guillermo Irusta eta Jesus Mari Garmendia etxarriarrak. Santutegian aurretik zeuden "hezetasunak eta pipiak jotako egurrak ziren, hondatuta zeuden eta kendu behar izan zituzten". Ama Birjinaren irudia, ermitaren goiko aldean jarritako buruko eta sagrarioa berri zitu zuten etxarriarrek. Zortzi hilabete eman zituzten horretan. Lanik latzenak ermitan bertan egin zituzten, eta finagoak Etxarri Aranazko parrokia etxeko lokalean.

Paretak margotu eta sabaiko egurra ere txukun utzi dute. Egiteko horietako batzuk auzolanean egin zituzten eta beste batzuk Construcciones Leachek egin ditu. Lanak errematatzeko, kanpoko hesiaren ondoren kristalezko itxitura bat jarriko dute, bere ate eta guzti. Horrek ermita eguraldiatik babesteko mo-



Guillermo Irusta eta Jesus Mari Garmendia ermitan.

dua emanen du. Horrekin batera, ermitaren aurreko aldean, teilatuen azpian egurrezko friso bat jarriko dutela jakinarazi du Alfonso Garziandia Goñik, santutegiko kaperauak. Azken hori "argazki zaharretan ikus daiteke,

eta berreskuratu egingen dugu", argitu du.

Trinitatearen egunean, garrantzitsuen 15ean, santutegitik ermitaraino prozesioa egin zen. Palentziako gotzain Mikel Garziandia Goñik bedeinkatu zuen.



EKAINAK 30 - UZTAILAK 4

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

10:15 Prentsaren azalak

10:20 Albisteak eta kirolak

10:30 Hizketan

11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin

14:00 Errepikapena

Hizketan

Astelehena 30

Jai Busak 25 urte

Astearte 1

Lino Arruti Joseba

Asteazkena 2

Bertsoa.eus

Osteguna 3

Ramos electricidad 50 urte,

Patxi Leiza

Ostirala 4

Agenda berezia

DUELA 25 URTE...



Estreinakoz, Jaibus

Trafiko istripuen prebentzio kanpaina gisa Jaibus martxan jarri zuten ibarreko hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateek. Festetara jendea eraman eta bueltatzeko autobusa, herri guztietatik pasako dena. Horrela aurkeztu zuten. Erriberan zortzi urte lehenago ezarri eta arrakasta izan zuen ereduak ekarri zuten ibarrera. UharTE Arakil, Arbizu eta Unanuko festetara joan-etorria egin zuen estreinaldian. Aurreneko urtean zazpitan atera zen Jaibus.



Gurasoek Hezkuntza Departamentuaren aurrean kexa idatzia aurkeztu zuten. UTZITAKOIA

Atakondoako gela bat bikoizteko eskaera

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan 30 ikasle egonen dira heldu den urtean, eta tarteka behar berezietako ikasle bat. Hala jakinarazi du Hezkuntza Departamentuak. Ikastetxea eta gurasoak gela bikoiztea eskatu dute

IRURTZUN

Garagartzaroren 18an despeditu zuen ikasturtea Atakondo eskola publikoak. Ezohiko kurtso bukaera izan zen, ikastetxeko hezkuntza komunitatea patioan protesta elkarretaratzea egin zuen. Zabaldu zuten pankartan *Hezkuntza duinaren alde, masifikaziorik ez* irakur zitekeen. Ondoren etorri dira gela horretako gurasoen bilerak, masifikazioa irudikatzen gurasoek gelan ateratako argazkiak, prentsara bidalitako gutunak eta Hezkuntza Departamentuaren erregistroan aurkeztutako kexa. Azken hori hilaren 24an aurkeztu zuten. Ekimen horien guztien bidez heldu den urtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako gela baten bikoizketa eskatzen dute. Aurrera begira zer pauso emanen dituzten zehazteko bilera egingen dute gurasoek. Eta ez dute baztertzen elkarretarateraren bat egitea, edo Hezkuntzako ikuskarien zuzendaritari bilera eskatzea.

Hilabete honetan ohartu ziren eskolan heldu den ikasturtean gela hori masifikatuta egon litekeela. Horren berri ikuskaritzari eman zion zuzendaritzak. Gurasoek egoeraren berri duela bi aste izan zuten. Gelan 30 ikasle eta irakaslea izanen dira. Gela horretako ikasle kopuruak oraindik %10 egin lezake gora, epezkano egiten diren ikasleen matrikulengatik. Hezkuntza legegidiaren arabera guztira 33 ikasle izatera irits litezke. Gainera, behar bereziak dituen ikasle bat ere hamar orduz ikasgelan izanen da, hezitzailearekin batera.

"Egoera larria"

Hala definitu dute gurasoek gela horretan gerta litekeena heldu den ikasturtean. Ziurtatu dutenez, "indarrean dagoen hezkuntza politikek eta azken itunak gure haurrek kalitatezko eta ekitatezko hezkuntza jasotzea eragozten du". Gaineratu dutenez, "irakasleen aldarrikapenaren ondorioz, Hezkuntza Departamentuak

DBHko ikasleen ratioa 30 ikasletik 28ra jaitea onartu bazuen ere, akordio hori ez da indarrean sartuko 26/27 ikasturtera arte. Beraz, datorren ikasturtea, legezkoa izan arren, gure seme-alabendako guztiz bidegabekia den egoera bat pairatzera behartuta gaude". Gela masifikatzeak "ikasleen eta irakasleen benetako beharrak ez ditu kontuan hartzen", salatu dute.

Ikasleen gurasoen iritziz, "Hezkuntza Departamentuak zenbakiak baino ez ditu ikusten. Baina zenbaki horien atzean ikasleak eta familiak gaude, eta guztiok biziko dugu bidegabekeria hau, kalitatezko hezkuntza bermatu gabe egiten ari dena". Gela bikoizteko inbertsioa eskatu diote,

**MASIFIKATZEAK
"IKASLEEN ETA
IRAKASLEEN
BEHARRAK EZ DITU
KONTUAN HARTZEN"**

haien seme-alabek "hezkuntza duin, gizatiar eta seguruak bermatzeko".

Galderak

Aurreikusten duten egoerak hainbat galdera sorrarazten die gela horretan seme-alabak dituzten gurasoei. Hasteko, "nola banatuko du irakasle batek 50 minutuko saio bateko denbora 30 ikasleren artean? Ikasle bakoitzeko 1,666 minutu dira. Horixe al da hezkuntza pertsonalizatua?" Gurasoak kezkatuta daude arreta faltagatiko nahasmendua hiperaktibitatearekin, dislexia edo bestelako zailtasunak dituzten ikasleek jasoko duten arretarekin.

Gurasoek gaztigatu dutenez, "behar bereziak dituen ikasleari tentsio egoeran areagotu egiten zaizkio epilepsia krisiak. Seguru al da ingurunea berarendako?" Ikasleen artean egon litezkeen jazarpen, liskar edo gatazka guztiak bideratzeko irakasleak behar besteko denbora izanen duen galdetu dute ere. "Edo 'parteak' eta kanporatzeak izango dira irtenbide bakarra? Hau da, pedagogikoki eskasa den bide bat?" Ikasleen tutorearen zereginari ere erreparatu diote gurasoek. "Zenbat denbora eskaini ahal izango dio tutoreak ikasle bakoitzari? Zein jarrerarekin sartuko da irakaslea egunero 30 ikasleekin betetako gela batera? Gogoz ala estutasunez?"

DBH2ko gelan 13 eta 14 urteko ikasleak izanen dira. "Zer-nolako bizikidetzak izango da 30 ikasleak gela batean pilatuta daudenean?" Izan ere, gurasoek azaldu dutenez, gelan gaztetxoek "ia mugitzeko tokirik ez dute, aireztapena eskasa da eta batzuk ezin izanen dute arbelera ere begiratu?"

Ikasgelak duen espazioari ere erreparatu diote gurasoek. "Armairuak atera dituzte lekua egiteko, ikasle bakoitzeko 1,7 m² baino gutxiago daude, aire berrikuntza urria da, ergonomia arazoak daude, irakaslea ezin ibili ikasleen artean ibili..." Nabarmendu dutenez, "larrialdi egoera suertatuz gero, espazioa eskasa da, eta ebakuazioa bideraezina izango litzateke".

Bestalde, Steilas, CCOO eta LAB sindikatuek Hezkuntza Departamentuak eta Anpe, Afapna eta UGT sindikatuek sinatutako hitzarmenaren kontra egin dute. "Adostutako DBHko ratioen jaitziera neurri kosmetikoa da, ez da eraginkorra".

Plazaola bide berdea irisgarriago bihurtu dute

Aizkorbe eta Irurtzun arteko zatian hainbat lan egin dituzte azken hilabeteetan

IRURTZUN

Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez, "egokitzapen lanen ondoren, Plazaolako Bide Naturala irisgarriagoa da pertsona guztiendako Aizkorbe eta Leitza artean". Bost hilabeteetan Dozena bat kilometro konpondu ditu Lakita enpresak 312.500 euro inguruko aurrekontuarekin. Lanak finantzatzeko foru administrazioak Europar Batasuneko Next Generation funtseko dirulaguntza izan du.

Hamabi kilometro horiek lau zatitan zeuden banatuta eta haietako bat Aizkorbe eta Irurtzun artekoa zen. Bidearen zati horretan hainbat lan egin dituzte. Batetik, Aizkorberako bidean hondatuta dauden porlan zatiak konpondu dituzte. Horrekin batera, bidea errepide ondora hurbiltzen denetik Irurtzunerako norabidean, tren geltokia zegoen zabalguneraino, tarteka zoruan konponketak egin eta harri handiren bat kendu eta bide bazterrak landarez garbitu dituzte. Auto-karabanen ondoko berdegunean egokitutako aulkia eta mahai moduko seinale bat jarri dituzte. Gainera, handik bide berdera ateratzeko "zubian" barandilla jarri dira. Tunelerako bidean bada bidearen puntu bat zeinetan eroritako hostoak eta adar zatiek irristakor bihurtzen duten. Zati hori garbitu egin dute. Horrekin batera, seinaleak eta km punturen bat egokitu dute. Azkenik, Irurtzuno tren geltokia zegoen tokian mugikortasun murriztutako pertsonendako aparkaleku plaza sortu eta markatu dute.

Nafarroako Gobernuak herrialdeko turismo baliabide eta zerbitzuen irisgarritasun neurriak ezartzeko lanean jarraitzeko konpromisoa azpimarratu du, pertsona guztien bizi kalitatea, autonomia eta aukera berdintasuna hobetzeko eta helmuga irisgarria bihurtzeko.

FESTAK

ARBIZU

SAN JUAN FESTAK

EKAINAK 27 ostirala KINTOEN EGUNA

11:00 Herriko puzgarriak.
12:30 Herri gosaria, Alda Bidek eskainia.
13:00 Sakanako trikitilariak.
17:00 Haurren herri kirolak.
17:30 Herritarren arteko herri kirolak.
19:00 Buruhandiak.
20:00 Aatea.
20:00–22:00 DJ Boletus Rumberus.
22:00 Zezensuzkoa.
00:00 Kontzertuak: La Txama eta DJ Boletus Rumberus.

EKAINAK 28 larunbata DENAK ITXAA EGUNA

11:00 Herriko puzgarriak.
12:00 Arbizuko erraldoiak Haize Berri dultzaineroekin.
12:30 Herri gosaria, Preso, iheslari eta deportatuen taldearen eskutik. Piperropil tailerra, plazan.
13:00 Sakana Kantuz.
14:30 Herri bazkaria.
16:00 Bakarriketak.
16:30 4X4 triala.
18:00 Herriko dantzariak.
20:00 Kontzentrazioa: Preso, iheslari ta deportatuak etxera.
19:00 Buruhandiak.
20:00 Aate.
20:00-21:00 Bizphiru pelau taldearekin erromeria.
22:00 Zezensuzkoa.
00:00-03:00 Bizphiru pelau taldearekin erromeria.

EKAINAK 29 igandea HAURREN EGUNA

11:00 Herriko puzgarriak.
11:30 Haur eta gazteen pilot partiduak.
12:30 Herri gosaria lurralde ezberdinetako janariarekin.
13:00 Play back.
14:00 Jostailugilea Etxarri Aranazko abesbatza txikiaren ipuin musikatua.
14:30 Haurren bazkaria.
15:30-19:30 Uretako puzgarriak (oharra: ez ahaztu bainujantzia).
20:00 Aatea eta buruhandiak.
Hogei berriro taldearekin dantzaldia.



UHARTE ARAKIL San Juan festak ospatu zituzten Uharte Arakilen.



ARBIZU San Juan bezperan hasi ziren Arbizuko festak; 29ra arte izanen dira. UTZITAKOIA

22:00 Zezensuzkoa.

URRITZOLA

EKAINAK 27 ostirala

19:00 Txupinazoa eta tardeoa.
21:00 Herri Afari plantxa.
22:30 Karaokea.
22:30 DJ Mazetarekin musika.

EKAINAK 28 larunbata

10:00 Dianak.
11:00 Hamaiketakoa.

11:30 Herri jokoak eta Kilikiak.
12:30 Bermuta txarangarekin.
14:30 Herri bazkaria.
16:30 Bazkalondoa: gaztaren enkantea, mus eta partxis txapelketa
20:00 Arratsaldeko kontzertua.
21:00 Bokata beroak.
21:30 Zezensuzkoa.
22:30 Su artifizialak.
23:30 Gaueko kontzertua.
01:00 Izozki saltzailea.
01:15 DJ Gazterekin musika.

EKAINAK 29 igandea

13:00 Bermuta.
14:30 Herri bazkaria.
16:00 Bingo musikala.
18:00 Festa bukaera.

ARRUAZU

SAN PEDRO FESTAK

EKAINA 27 ostirala

15:00 Norberak bere etxeko ataria garbitzea.
18:00 Suziria, Herriaren Etxetik.
18:30 Meza, San Pedro baselizan.

19:00 Merendua, San Pedro.
Oharra: baseritarrez jantzita etorri.
20:00 2024an jaiotakoei zapien banaketa.
21:00 Zezensuzkoa txikiendako.
21:30 Arbazuko Zortzikoak, plazan.
22:00 Afaria Itur Gain elkartean.
00:20-04:30 Kaixo taldearekin dantzaldia eta jauziak

EKAINAK 28 larunbata

17:00 Haurrendako jolasak Dindaiarekin, elkarte atzealdean.
18:00-20:00 Elektrokela Elektrotarangarekin etxez etxe parranda.
20:00 Gazta eta ardoa, haur parke parean.
20:00-21:30 Trikiteens taldearekin dantzagarriak.
21:30 Zezensuzkoa txikiendako.
00:30-03:30 Trikiteens taldearekin zirriak eta irriak.

EKAINAK 29 igandea

12:00 Meza santua.
12:30-14:30 Haur parkea.
15:00 Herri bazkaria, frontoian.
16:30-17:30 Haur parkea.
18:00 Ubelde jaitziera Koxkotik Ubeldetxabalera.
19:00 Haurrendako txokolatea.
19:30-21:00 Fidel Show gizon orkestra.
20:00 Gazta eta ardoa Ostatu ondoan.
21:00 Zezensuzkoa txikiendako.
22:00 Herri parrillada, plazan.
00:30-03:30 Fidel Showrekin disko jartzaile festa.

EKAINAK 30 astelehena

15:00 Herri paella zuhaizpean.
18:30 Betiko Bingoa.
20:00 Gazta eta ardoa frontoi aurrean.
21:00 Zezensuzkoa txikiendako.
22:00 Herri parrillada, frontoian.

UNANU

SAN PEDRO FESTAK

EKAINAK 27 ostirala

12:30-14:30 Luziano akordeoilaria.
13:00 Txupinazoa eta auzatea.
18:00 Pilota: Olaetxea – Lizarraga / Murgiondo – Lazkoz.
19:00-20:30 Haizaldi gaita jotzaileak.
20:00 Auzatea.
20:30-22:00/00:30-00:00 Biziarun erromeria.

EKAINAK 28 larunbata

12:00-14:00 Puzgarriak eta



IZURDIAGA Itsasoa izan da aurtengo festetako gaia. UTZITAKOA

eskulan tailerra.
TXOTX ta Triki trikitilariak.
16:00-18:00 Puzgarriak eta aurpegi margoketa.
17:00 Karaokea.
18:30 Oberena dantza taldea.
20:00 Auzatea.
20:30-22:00/00:30-04:00 Ilargi taldea.

EKAINAK 29 igandea

11:00-14:00 Ekojolasak eta puzgarriak.
12:00-14:00 Txotx Ta Triki trikitilariak.
13:00 Meza.
18:00-19:30 Duo Chavela Mexicanas.
20:00 Auzatea.

LIZARRAGA-BENGOA

EKAINAK 27 ostirala

19:00 Festen hasiera.
Puzgarriak eta japoniar bonbak.
19:30 Auzatea eta trikitilariak.
21:30 Afaria.
23:00-02:00 Pantxo Balbuena.

EKAINAK 28 larunbata

12:00 Etxez etxe Altsasuko Fanfarrearekin.
17:00 Puzgarriak.
18:00 *Azken Fakirra*, Zirika Zirkusen ikuskizuna.
19:00 Japoniar bonbak.
20:00 Auzatea.
21:30 Afaria.
23:00-00:00 Irati eta Ekhiñe.

EKAINAK 29 igandea

12:00 Etxez etxe Bixenterekin.
17:00 Puzgarriak.
Mus txapelketa, elkartean.
18:00 Pilota partidak: Haitz Larrañaga-Haritza Mauleon / Ekhi Arrese-Aitz Bertastegi.
19:00 Japoniar bonbak.
19:30 Kontzentrazioa: *Behin betiko etxera!*
20:00 Bixenterekin auzatea.

ALTSASU

SAN PEDRO EGUNA

EKAINAK 29 igandea

10:00 Udalbatza, Altsasuko Txistulariekin batera, San Pedroko zelaira abiatuko da.
10:45 Auzatea eta zortzikoa.
14:30 Bazkariak.
17:00 Udalbatzaren agurra zelaiaren barrena eta puruen banaketa.
20:00-22:00/22:30-24:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia, Foru plazan.

URDIAIN

SAN PEDRO FESTAK

UZTAILAK 4 ostirala

BEZPERA

17:30 Kadeteen txirindularitza lasterketa.
23:00 Tekno gaua: McFlurry, Guridi, Apao, Zaze eta I+D, UGAK antolatuta, gaztetxean (Sarrerak: 5 euro).





2024ko Arruazuko festetako Ubelde jaitsiera. UTZITAKOA

Ohiturak berreskuratzen

Ekainaren 29an, igandea, Ubelde jaitsiera egitasmoa izanen da Arruazuko festen barruan. Lagun kuadrillak txalupak prestatzen ari dira, eta Koxkotik ibaitik behera joango dira. Gazteek aurreko urtean berreskuratu zuten ekimen bat da

Erkuden Ruiz Barroso ARRUAZU

Gaurko egunerako gogotsu daude Naia Satrustegi, Iraide Betelu eta Edurne Satrustegi arbazuarrak. Gaur, ekainak 27, ostirala, hasiko baitira San Pedro festak Arruazun; gaurko eguna gogokoena dela esan dute hiru gazteek: "Ermita hobereena da. Han dagoen giroa, herri guztia biltzen da...". Lehenengo eguna, "orokorrean", festa giroa "pizten duena" dela esan dute. Herriko zortzikoaren momentua ere nabarmendu dute.

Zer egiten dute Arruazuko festetan? "Jan, edan, auzolan dezente...". Eta bada festetan ere beste ekitaldi bitxi bat: Ubelde jaitsiera. Igandean, ekainaren 29an, San Pedro egunean, 18:00etatik aurrera, egingo dute, eta "txalupa" lasterketa bat dela esan daiteke.

"Gure gurasoek egiten zuten gauza bat da. Beraiek egiten hasi ziren. Gauza asko antolatzen zituzten. Txikiak ginenean txalupan eramaten gintuzten", azaldu du Naia Satrustegik. Denborekin Ubelde jaitsiera egiteari utzi zioten, "lana, haurrak eta abar zela eta", eta gazteek urteak zeramatzen esaten berriz antolatu behar zutela: "Eta aurreko urtean esan genuen, benga, ja! Jarri ginen eta antolatu genuen".

Txalupak

Egitasmoa berreskuratzen saiatzen ari dira herriko gazteak: "Aurreko urteko bileran proposatu genuen, eta hasieran uste zuten ez zela aterako, parte hartzerik ez zuela izango... Egin genuen eta txalupa dezente egon ziren", azaldu du Edurne Satrus-

tegik. "Esperimentu" bat izan zela gaineratu du Iraide Beteluk. Zazpi bat txalupetik parte hartu zuten, eta Iruñetik ere etorri zirela esan dute.

Ekaina hasieran txalupa prestatzen hasi behar ziren, baina aste bat bainogutxiagogelditzen zenean, oraindik "hasten" ari ziren. Nola egiten da txalupa bat? "Gehienbat poliespana erabiltzen dugu. Poliespana, paleak eta bidoi urdinak". Imajinazio pixka bat ere behar dela esan dute. "Aurten tematikak jarritzen hasi gara", gaineratu du Iraide

**ARRUAZUKO FESTAK
"HERRITIK
HERRIARENDAKO"
EGITEN DIREN
FESTAK DIRA**

dek, "aurreko urtean lehenengo iristen zenak irabazten zuela izan zen, eta aurten txalupa bakoitzak tematika bat izango du". Aurreko urtean egon zen txaluparen bat "ez zena txalupa, eta minutu pare batean beste puntan zeuden", esan du Edurnek; "orduan pentsatu dugu txalupa bakoitzak tematika bat izatea eta moztorturik joatea". Espektakulua emana dago.

Araurik ez

Txalupa bakoitzaren gainean "bost edo sei pertsona" joaten dira, "bakoitzak nahi duena". Jaitsieran parte hartzeko araurik ez dagoela esan dute. Koxkotik Ubeldetxabalera jaisten dira txalupak: "Hasten gara Koxkon, zubitik pixka bat gorago dagoen leku bat. Hor hasi eta beheraino; alde batetik bestera joaten diren harrietara", azaldu du Naiak. Aurreko urtean espero baino jende gehiago hurbildu zen jaitsiera ikustera; zubitik ikus daitekeela esan dute. "Kanpoko jendea etorri zen ere". Lehenengo jaisten denak irabazten du, baina sari morala da, ez baitago saririk. Ongi pasatzea da saririk hoberena.

Uraren emaria baliatuz, arruanean... Nola jaisten dira txalupak? "Denetarik pixka bat. Badira ibaiaren zenbait zati txalupa ez dela pasatzen eta hor bai lagundu behar dela...". Joan den urtean parte hartu zuten batzuk "buzo

batekin" joan zirela esan dute: "Aletak eta abar zeramatzen eta oso azkar egin zuten dena, txalupa bultzatzen". Aurreko urtean txalupa bakoitzeko pertsona bat uretan zegoen bultzatzen laguntzen, baina aurten denak txaluparen gainean egotea nahi dute, "eta paseo moduan egitea".

Arruazuko festak herritik herriarendako egiten diren festak direla esan dute gazteek; "auzolanen". Denendako "zerbait" egiten saiatzen direla esan dute. "Azkenean, herri txiki bat da eta denendako gauzak egon behar dira". Gazteendako gauza gehiago egotea saiatzen ari dira ere, eta aurten, esaterako, Elektrokela Elektrotzaranga izango dela nabarmendu dute.



**"GURE GURASOEK
EGITEN ZUTEN;
AURREKO URTEAN
ESAN GENUEN,
EGINGO DUGU!"**



Unenuarrek auzolana egin zuten joan zen larunbatean. UTZITAKOIA

A.A.I. UNANU

Urtean behin dituzte festak Unanun. Asteburuan izanen dira. Unenuarrak "animosoak" direla argitu digu Hernanek. Gaineratu duenez, "jendeari herriko festak gustatzen zaizkiola. Beste gauza bat da, beste giro bat. Etxean bezala zaude. Unanuko festak oso alaiak dira".

Festak antolatzeaz nor arduratzen da?

Normalean kontzejuan dauden lau edo bostek dute ardura. Musika, ardoaren eta gaztaren banaketa beraiek antolatzen dute. Eta herriko jendeari laguntza pixka bat emateko hots egiten digute, esaterako, auzatean banaketa egiteko. Festak bukatzean hurrengoak prestatzen berehala hasten zara. Gauza asko antolatu behar dira.

Festen egitarauan ez da agertzen, baina, oker ez banago aurreko asteburuan auzolana egiten duzue, ezta?

Bai. Normalean, herria garbitzen dugu, banderatoak jartzen ditugu eta musikariendako kioskoa plazan jartzen dugu. Festak baino aste bat lehenago dena prestatzen dugu. Herriak laguntzen du. Zerrenda bat dugu, jendeak izena ematen du eta festetarako dena prestatzen dugu. Jakina, dena eginda ikusten da, baina horren atzean lana dago. Horregatik aste bat lehenago prestatzen dugu guztia.

Banderatxoak eta kioskoa jartzea, bale. Garbitzearena? Herrian barna erratza pasatzen duzue?

"Jende askok parte hartzen du"

AINHOA HERNAN MENDIBE UNENUARRA

Gaur hasi eta igandera arte, hiru egunez festetan izanen dira Unanun. Baina ospakizunen aurretik lana egin behar izan dute herritarrek, auzolana

Bai, erratza pasatu, belarra moztu, eskolak garbitu... Dena txukuntzen dugu.

Auzolan hori noiz egiten duzue?

Festak baino asteburu bat lehenago egiten dugu. Kanpoan bizi den Unanuko jendea ere etorzen da eta festen prestatketa lanak egiten laguntzen du. Jende asko egoten da. Kasik 40 pertsona, gehiago batzuetan. Ikusten ari gara urtero gazteak animatzen direla auzolana egitera. Adineko batzuk dagoeneko ezin dute egin, baina seme-alabak edo aritzen dira. Jendea asko animatzen da auzolana egitera. Nahi dute Unanuko herria izatea, baita txukun egotea ere.

Zenbat ordu irauten du?

08:00etatik 13:00etara edo 14:00etara egoten gara, dagoen lanaren eta elkartzaren garen jende kopuruaren arabera izaten da lehenago bukatu edo ez.

Auzolanean zaudetela, gosaltzeko gelditzen zarete?

Ohitura da gosaria egitea. Batzuk gosaria prestatzen egoten dira. 10:00etan gelditzen da. Denok bat elkartean gosaltzen dugu. Eskerrak elkartea dugun! Urdaiazpikoa, txistorra eta arrautzak. Ondoren kafea. Nahi duenak, pixka bat, kopa. Gosari ona izaten da, handia. Gosalduta, atzera ere, lanera. Herri txikietan auzolana ohitura da. Baina guretako gosaria oso inportantea da, gero lanean segi behar duzu. Eta tripa beteta hobe ateratzen zara.

Gosarian kontu kontari ibiltzen zarete?

Bai, festak heldu direla, elkartuko garela, jendea ikusiko dugula, zer egin behar dugun, zer-



"NIRETAKO SENTSASIO ONA DA, HERRIARENDAKO GAUZA OSO ON BAT EGIN DUZULAKO"

tan ari garen, garai bateko kontuak atera... Gauza asko ateratzen dira. Zeren denok presaka bizi gara. Bizia horrela da. Lana, aste bukaeratan jende gutxi. Ongi pasatzen dugu. Nire ustez auzolana leku guztietan egon behar luke, jendea elkartzeko gauza inportantea da.

Urtean zenbat auzolan daude?

Bi. Bat festetarako da. Eta bestea iraila aldera, negua hasi baino lehen, neguan ezin baita gauzarik egin. Horrela herria txikia txukunduta uzten duzu. Berez herria txikia da, baina pixka bat txukun izan behar duzu. Ez da festak heldu direlako egiten, jarraipen bat emateko da.

Herritar guztiek joan behar dute auzolana egitera?

Bai. Ikusten ari gara auzolanena asko mugitu dela. Herria mantentzeko. Lehen joaten ez zen jendea orain joaten hasi da, eta gustura joaten da. Hori oso ongi dago. Herri txikia da eta ikusten da mugimendua dagoela. Hori oso polita da.

Auzolaneko arduraduna egoten da?

Kontzejukoak joaten dira eta lanak banatzen dituzte. Egin beharreko dena pixka bat antolatuta dute. Egun batzuk lehenago herria nola dagoen begiratzen dute eta zer gauzak falta diren ikusten dute, bakoitzak zer egin behar dugun jakiteko. Ez da joan eta geldi egotea. Oso ongi antolatuta dute.

Joaten ez denari, zer?

Isun txiki bat jartzen dio kontzejukoak. Herri txikia denez, kontentsazioa jarri beharra duzu. Batzuk adina dute eta horiek ez dira joaten. Eta 15 urtetik gora laguntzera joan daitezke. Eta dauden gutxiak joaten dira. Ezin gara kexatu, horretan zorzea dugu.

Nolako izan zen zure lehen auzolana?

Oso polita. Emakumezkoak ere joaten gara, hiruzpalau. Eta denok bezala lan egiten dugu. Ni gauzak garbitzen egon nintzen: frontoia, eskolak, belarrak hartzen... Eta gero, beharbada, gosaria prestatzera joaten nintzen. Bi edo hiru urte joan naiz, eta oso gustura.

Auzolana egin ondoren, etxera zein sentsazioekin bueltatzen zara?

Oso onarekin. Niretako sentsazio ona da, herriarendako gauza oso on bat egin duzulako. Horrekin gelditzen zara sentipen onarekin. Gero festetan jendea gustura dagoela ikusten duzu.



Lourdes Garmendia Lacunza eta Nerea Lacunza Loban, Bordatxo elkarteak. UTZITAKOIA

Erkuden Ruiz Barroso

LIZARRAGABENGOA

Ekainaren 27tik 29ra ospatuko dituzte festak Lizarragabengoan. Plaza ez ezik, badago beste toki bat festaren erdigunea izanen dena: Bordatxo elkarteak. Bertan biltzen dira urtean zehar herritarrak, eta festetan "taberna" gisara funtzionatzen duela ere azaldu du Lourdes Garmendia Lacunza juntakideak. "Ezinbestekoa" da elkarteak.

Bordatxo elkartearen historia luzetik dator. "Orain Bordatxo lehengo apaizaren etxea esaten zaion tokian, horretan baina hori baino lehen bazen beste leku bat, borda txiki bat zena". Garmendiaren amak 82 urte ditu, eta gaztea zenean bazegoen Lizarragabengoan Altxagaren etxea bezala ezagutzen ziren toki bat: "Taberna bat zen, ostatua". Etxe horretan bizi zirenak Gipuzkoara joan ziren, eta herria tabernarik gabe gelditu zen. "Beste etxe batean ardoa saltzen hasi ziren, eta bertan hasi ziren aiton batzuk elkartzeko; amonarik ez, aitonak". Ardoa saltzen zuten eta aitzakia horrekin trago baten bat hartzeko biltzen ziren gizonak. "Momentu batean herriko batzar batean erabaki zen borda txiki bat egokitzea". Borda hori Dionisio izeneko herriko seme batena zen, bordatxo bat zeukan, eta zerbait sinbolikoaren truke espazioa eskaini zuen, "eta auzolanean elkarteak egin zen".

Herriaren egongela

Lizarragabengoako Bordatxo elkarteak elkarte bat baino gehiago bada: topagunea. Urtean zehar herritarrak bertan biltzen dira, eta festetan ere gune nagusia da. Auzolanaren garrantzia goraiatu du Lourdes Garmendia juntakideak

Besteak beste, su bajo bat eta mahai bat jarri ziren.

Handik zenbait urtetara, 1988an gutxi gora behera, apaizaren etxea momentu horretan herriarendako gelditu zen; herriko alaba bati saldu zitzaion eta beste erdia elkarteak hartzeko egokitu zuten eta auzolanean elkarteak egin zuten, "gaur egun dagoen bezala".

"Elkarteak auzolanean sortu zen; bai lehenengoa bai bigarrena. Goraiatzekoa da". Gainera, tresnak eta abarrak birziklatu koak direla esan du Garmendiak:

"ORAIN BORDATXO ELKARTEA LEHENGO APAIZAREN ETXEA ESATEN ZAION ERAIKINEAN DAGO"

"Botilleroa ere bigarren eskukoak da, Navarroren etxea Etxarrin taberna eta ultramarinos bat zena, nahiko ezaguna, eta hura moldatu zutenean ekarri genuen Lizarragabengoara".

Topagunea

Elkarteak elkartzeko toki bat bezala sortu zen, "herrian ez dago tabernarik, ez dago besterik". Lizarragabengoako etxe guztietan elkarteak bazkideren bat izan dela esan du Garmendiak. "Zehazki ez dakit zenbat kide izango zituen, baina hasieran demagun sei eta zortzi artean izango ziren. Gaur egun 28 kide gara, eta nik uste dut jende gehiago ere egon izan dela". Junta urtero aldatzen da, eta aurten Garmendia, bere anaia Alberto eta lehengusina Nerea Lacunza osatu dute. "Urtero hiru kide sartzen dira; batzar

bat egiten dugu urtero San Pedro aurretik, eta bertan urteko kontuak azaltzen dira, diru sarrerak, gastuak, auzolanak antolatu behar diren zerbait konpontzeko...". Urtero egin daitekeena edo beharrezkoa dena esaten dute: "Aurten ikusi dugu edaria hozteko kamara bat erosi behar dugula. 1988tik daukagu; bigarren eskukoak zen eta aurten inbertsioa egin beharko dugu".

Bordatxo elkarteak bazkide izateko herrian bizi edo herrikoak izan behar zarela azaldu du Garmendiak. "Estatutuak sortu ge-

"URTEAN ZEHAR ERABILPENA BESTELAKOAK DA; FESTETAN TOPAGUNEA DA"

nituen, eta bertan bizi edo bertakoa izan behar zara sartzeko".

Urtean zehar elkarteak ez du "egitismo berezirik" antolatzen. "Halako herri txikietan kontzejua denez, kontzejuko presidentea eta laguntzaileak kontzejua gelan biltzen dira eta bertan dago ere. Nahasketa moduko bat ematen da". Euskaraldia, San Isidro... Urtean zehar egiten diren ekimenak elkarteak egiten dira ere. "Egutegian markatuta dauden egunetako auzateak egiten dira, batzarrak, duela gutxi liburu baten aurkezpena antolatu zen... Herriko egoitza da".

"Festetan kanpotik jendea etortzen da, ez asko, baina etortzen da. Elkarteak pixka bat irekiago egoten da". Herriko jendea eta bazkideak elkarteak egoten direnez, "gutako norbait barran sartu eta zerbitzu dezake". Txandak ez direla egiten azaldu du Garmendiak, "kanpoko norbait etortzen bada, taberna moduan funtziona dezake; edozein bazkidek zerbitzatzen du. Demagun arratsaldean antzerkia dagoela; beti egongo da norbait zerbitzatzeko". Mugimendu gehiago egoten dela gaineratu du.

Festak

"Esan daiteke dena bat dela. Mus txapelketa egiten bada, elkarteak egiten da; bi egunetako afaria, elkartearen aurrealdean egiten da...". Hortaz, elkarteak ez du festetan egitarau propioa egiten; "momentuz, ez". Elkarteak festetako egoitza ere bada. "Urtean zehar erabilpena bestelakoa da: afariak egiten dira, kafetxo bat hartzera joateko... Norbait kanpotik etortzen bada ere harekin egoteko tokia. Festetan topagunea da".

Garmendiak ez du oroitzen elkarteak festetan bizi izan duen anekdotarik, baina festetako unetxoren bat aukeratu behar badu etxez etxekoa da: "Oso polita da. Herri osoa etxez etxe joaten da musikarekin lagunduta". Garai batean Etxarriko akordeoilari bat joaten zen, Jose Itsua, gogoan du Garmendiak: "Etxe batean edo bestean gelditzen bazkaltzen, gero musika jotzeko. Giro oso polita sortzen zen". Bestela, gurdien baten ganean jotzen zuten gitarrista eta bateria jolea gogoan ditu: "Eszena tokia gurdia zen. Haurtzaroko oroitzapen hori daukat". Politea eta gaur egun mantendu dena etxez etxea da, "eta gauean herria elkarteak".



Etxarrik San Jorgeren kontrako itzulerako partidaren atera zuen hamaikakoa, Ioseba Bakaikoa entrenatzailearekin. ETXARRI K.E

Burua tente despeditu du denboraldia Etxarri Aranatzek

FUTBOLA Etxarri Aranatz futbol taldeak ezin izan du preferentera igotzeko ametsa gauzatu, San Jorgeren kontra erori baita. Hala ere, denboraldia "oso ona" izan dela uste du Ioseba Bakaikoa entrenatzaileak eta esker oneko hitzak besterik ez ditu

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Etxarri Aranatz futbol taldeak denboraldi bikaina egin du. Erregionaleko ligan hirugarren sailkatu da, kopa irabazi du, baina ginga jartzea falta izan zaio, igoera fasean San Jorgeren kontra erori egin delako. Erori, baina zutik erori da Etxarri. Beste batean izango da.

Ioseba Bakaikoa

Ioseba Bakaikoa Salceda lakuntzaria izan da Etxarri Aranatzko entrenatzailea 2024/2025 denboraldian. Etxarri futbol taldean hasi zen futbolari. Ondoren, preferenteko Uharteko Arakilen, hirugarren mailako Aozen eta Txantrean, erregionaleko Lagun Artean, Bigarren B mailako Beasainen, Lagun Artean –preferentera eta hirugarren mailara igo ziren– eta Txantrean aritu zen. Bere ibilbidea herri-

ko taldean despeditu zuen, Lagunen, 35 urte zituela.

Bitartean entrenatzaile atera zuen. "Beti gustatu izan zait". Lagun Arteak eskatuta, benjaminen taldea entrenatu zuen lehenengoz, eta jubentilak, beste denboraldi batean. "Tarteka atsedean hartzen dut, entrenatzaileena dedikazio handia delako". Lazkaoren deia jaso zuen, baina pandemia eta familia arazoengatik utzi zuen. Duela bi urte Lagun Artearen deia jaso zuen, maila galtzear zegoen jubentil taldea entrenatzeko, eta hamar egun egin zituen.

"PLANTILLAK TALDEAREKIKO KONPROMISO HANDIA IZAN DU"

IOSEBA BAKAIKOA

Etxarri Aranatz futbol taldera

2023/2024 denboraldia bukatuta, Etxarrik Bakaikoarengana jo zuen. "Etxarrin jokatu nuen, kariñoa diot eta beti oso ondo tratatu naute. Gainera, entrenatzeko gogoia piztu zitzaidan, deskonektatzeko. Entrenatzen ari zarenean ez baitago lanik, gertuko gaixotasunik, etxeko ardurarik... Gero guztia itzultzen zaizu bueltan, baina airea hartzeko gogoia nuen eta animatu nintzen".

Bakaikoak joan zen urteko blokea topatu zuen taldean. Gehienak jokalariek gazteak, Xabat Goikoetxea kapitaina –larunbatean erretiratu zen– eta beste bizpahiru beterrano izan ezik. Oinatz Carreño Beasainetik iritsi zen, eta Aimar Ijurra Altsasutik. Bakaikoa bere lan egiteko moduan hasi zen lanean, taldeak bere egin duena.

Primerako liga

Taldeak ongi ekin zion ligari, eta hala jarraitu zuen, bukatu irabazirik. Altsasuk irabazi zuen liga (96 puntu), San Jorge bigarren izan zen, eta Etxarri hirugarren. "Altsasuk ez du areririk izan, merezitako txapelduna da, eta San Jorgek eta biok lehia estua izan dugu, baina gehiengotan beraiek egon dira gure gainetik. Igoera faseak erakutsi du gure multzoa, laugarrena, erregionaleko mailako indartsuena izan dela, gure multzotik hiru talde igo direlako preferentera: Altsasu, San Jorge eta Rotxapea, eta gu ez gara igo San Jorgeren kontra erori ginelako".

Denboraldi ona egin du Etxarrik, ez bairik gabe. "Nahi genuen tokira iritsi gara, igoera faseko azken finalera, baina..."

Kopa, egun politenetakoa

Tartean, Etxarri Aranatzek, kopa irabazi zuen historian lehenengo aldiz, Carcastilloko Larrateri Funesen 1-2 irabazita. "Taldearendako sekulako gorakada izan zen; nire bizitzako egunik politenetakoa, finalak zaleak eta Etxarri herria bera mugiarazi zuelako, transmititu zen kariñoarengatik... Partida oso ongi prestatu genuen eta jokalariekin alderdi emozionala asko landu genuen. Tarteka taldeko irudiekin musikadun bideoak jartzen dizkiet, alde emozionala lantzeko. Finala kontra jarri zitzaigun, baina berdintzea eta deskontuan 1-2 irabaztea lortu genuen. Zortea faktore oso garrantzitsua da futboleko alde izan genuen, igoera fasean ez bezala. Zorarena izan zen, sentitu genuena sekulakoa izan zen, poztasun handia".

Etxarrik ilusioa piztu du herriari. Aspaldiko partez, inoiz

baino jende gehiago gerturatu da futbol partidak ikustera. Juntan jende berria sartu da, lan egiteko gogotsu, eta guztiak batu egiten du. "Etxarri Aranatzko apalategian geratu da kopa, bizi guztirako. Zaila izango da berriz halakorik lortzea. Denboraldiko gertakaririk politena izan da".

Superkopa

Kopa irabazi izanagatik, Etxarri Aranatzek Superkopa jokatu du Tuterako Lourdesen kontra. Abuztuan izanen da, eta bi partidatan erabakiko da, joanekoan eta itzulerakoan. "Irabazten duen taldeak estatu mailako Errege Kopan parte hartuko du: kopa lehen bonboan sartuko da, goi mailako taldeekin batera. Ea nola ateratzen den".

Igoera fasea

Igoera fasean, lehen kanporaketan Etxarrik San Ignacio izan zuen aurkari. "Joaneko partida oso ona egin genuen. Bigarrena, nahiz eta galdu, ez zen horren txarra izan, baina aurretik genuen abantailari esker kanporaketa gaitzitu genuen". Bigarren kanporaketan ligako arerio nagusiarekin, San Jorgerekin gurutzatu ziren.

Joaneko partida Etxarrin jokatu zen. "1-2 galdu genuen, baina egin genuen partida gustatu zitzaidan. Ez genuen zortea alde izan, aukerak izan genituelako. Aldiz, San Jorgek izan zituen aukerak ez zituen huts egin. Bere indargunea zelai erditik aurrerakoa da, aurrean potentzial handia dauka. Atzean sendoak dira, baina aurrean hiru jokalarik oso erabakigarri dituzte, eta ez dute barkatzen".

Itzulerako partida larunbatean jokatu zuten, San Jorge zelaian.

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU

Festetarako postreak aurretik enkargatu!

PORTUKO

—SOURCE—
Gaja egiten

Altsasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988

Etxarrik erremontatzea posible ikusten zuten, "horretarako, lan egin genuen". Etxarri kontzentratu zen: elkarrekin bazkaldu, eta autobusean joan ziren Sanduzelaira. Zelaira atera baino lehen 8 minutuko bideoa jarri zien Bakaikoak. "Kopako finaleko irudiak agertu ziren, denboraldiko beste partidak... emozioak nahasi ziren, une onak gogoratzea ona baita". Aldagela oso batuta egon da. "Aurten bi jokalariri guraso bana hil zaie, nire ama ere gaizki dago... gurea bezalako aldagela gaztean, kolpe latza izan da".

San Jorgek gol bateko abantaila zuenez, sistema aldaketa egin zuten Etxarrik itzuleran: defentsa gutxiago eta aurrelari gehiago, "baina sistema berriak funtzionatzen zuten probatu baino lehen, 2. minutuan gola sartu zigun San Jorgek. Determinatzailea izan zen, psikologikoki jota utzi zigun, bi gol erremontatu behar genituelako. Hala ere, partida berdintzea lortu genuen eta, eta entxufatu ginen. Tamalez, bigarren zatian San Jorgek ez zuen barkatu".

3-1 galduta, igoera fasetik kanpo geratu da Etxarri. "Autokritika egin beharra dago eta, agian, egin nuen planteamendu hori ez zen egokiena izan. Defentsa gutxiago jartzeko arriskua hartu genuen, golak sartu beharra genuelako, denboraldia ere luzezia egin da... Dena den, aitzakiak ez ditut gustuko: San



Ioseba Bakaikoa, taldea gidatzen.

Jorge gu baino hobea izan da, eta merezitako irabazlea da. Hala ere, ohiko sistema (4-4-2) ez erabiltzearen arantza dut".

Oso eskertuta

Ioseba Bakaikoak esker oneko hitzak, ez ditu besterik. "Eskerrak eman nahi dizkiot plantillari, taldearekiko izan duen konpromisoarengatik. Gauzak erraztu dizkidate eta nire lan egiteko modura egokitu dira. Etxarriko junta bikain aritu da, ezin hobe, behar izan dugun guztia erraz-

tu digutelako. Eta, jakina, zaleak. Sekulako kariñoa transmititu didate. Guztiei eskerririk beroenak eman nahi dizkiet".

Bestalde, Altsasu Kirol Elkar-teak emandako babesa nabarmendu nahi izan du. "Gurekin egon dira bukaeraraino. Harreman handia sortu da Ivan Claver entrenatzailearekin, jokalariek... Futbol zelaiak trukatu ditugu belar artifizialean edo naturalean entrenatu behar izan dugunean eta Claverrek laguntza eman digu San Jorgearen partida prestatzeko. Altsasu %100ean egon da Etxarrirekin, babestuta sentitu gara eta hori eskertu beharra dago. Azkenik, etxeok eta ingurukoak aipatu ditu. "Beraiek dira egunero gure estresa ordaindu eta aguantatzen dutenak, beraz, eskerrak beraiei".

Denboraldiaren balorazio ona egiten du Bakaikoak. "Kirolaren aldetik oso ona izan da, kopa irabazi eta ligan nahi genuen lekura iritsi garelako, igoera faseko bukaeraraino. Futbolak asko ematen dit".

Datorren denboraldian segituko ote duen, "oraindik ez gara Etxarriko juntarekin hitz egiten jarri. Egunotan argituko dugu. Orain atsedean hartzea dagokigu, denboraldia nekagarria baita: entrenamenduak mimoz presatatu, jokalariek banaka hitz egin, ea nola dauden, partidak... dedikazio handia eta denbora da. Horri fabrika gehitu behar zaio, eta familia".

Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA

Ane Campo Flores lakuntzarra Dulantzi taldeko defentsa da. Arabako erregionalean bigarrenak izan dira, Arabako kopa irabazi dute, eta pozarren daude.

Noiz hasi zinen futbolean?

Adur anaia super futbolaria da, Lagun Arteko atezaina. Txikiak ginela, bera atezain jartzen zen eta niri jaurtiketak egitea eskatzen zidan. Bospasei urterekin, argi nuen: kirola? Ba futbola. Eta Lakuntzako Lagun Artean hasi nintzen. Alberto Ormazabalekin entrenatzen genuen adin bereko neska-mutilek. Naroa Arraiza eta ni ginen neska bakarrak. Mankomunitateko Futbol Topaketetan parte hartu genuen, eta gurea eta Sutegikoa ziren talde misto bakarrak.

Infantiletan Nafarroako Futbol Federazioko ligan hasi zineten.

Infantilen lehen urtean gure multzoko talde misto bakarra gu ginen. Bigarren urtean emakumezkoen Mulier taldea gure multzoan sartu zuten. Gainontzekoak denak mutilak ziren.

Mutilek ezberdin tratatzen zizueten?

Lagun Artean ez. Ez zen inolako bereizketarik izan, inoiz, eta beti bata besteari normaltasun osoz tratatu izan gara, eta ez mutil edo neska gisa. Jokatzeko guztioi beste jokalariei gorputza normaltasunez sartzen erakutsi ziguten. Aldiz, kanpora ateratzen ginenean beste taldekoek, nolabait esateko, guri "errespetu gehiagoz" tratatzen gintuzten. Mutilekin sendo sartzen ziren, baina gurekin, ez horrenbeste. Beraien taldeetan ez zuten neskarik, ez zeuden ohituta. Gurekin normaltasunez nola jokatu ez zekiten.

Kadeteetara pasatzerakoan, araudiari jarraiki, mutilak eta neskek banatu zineten. Lagun Arteko mutilei pena handia eman zien.

Bai. Lagun Arteko klubak gu gelditzea nahi zuten, saiatu ziren, baina ez zuten modurik aurkitu. Hortaz, mutilek kadeteetan aurrera jarraitu zuten. Naroa Beasainera joan zen, eta ni Lekunberrira, egun Lagun Arteko Aitor Goikoetxea futbol koordinatzailearen bidez, berak Beti Kozkor entrenatzen zuelako. Bi urte egon nintzen bertan.

Talde mistotik emakumezkoen taldera. Aldea nabaritu zenuen?

Lakuntzan nire lagunekin zazpi urtez aritu ondoren, talde berria zen, denak neskek. Nik 13-14

urte nituen, baina bazeuden 25 urtetik gorakoak. Neska horiek baloiari asko emango ziotela pentsatu nuen, eta aurretik mutilekin jokatu izana eskertu nuen, beldur horiek kendu nituelako. Taldekideek, mutilekin orduak sartu nituela ikustean, beste batzuk baino indar edo agresibitate puntu bat gehiago neukala nabaritu zuten, eta taldean hori eskertu zen. Uste dut ni sartzeak taldearen agresibitate puntu hori igo zuela.

Zein postutan jokatzen duzu?

Defentsa naiz, zentrala, edo tarteke erdialdean jokatzen dut, baina defentsan, atzeraka.

Beti Kozkorreko bi urteak, nolakoak?

Ikasketa oso handia. 13-15 urte nituelarik, 28 urteko emakumeen aurka jokatzen ikasi nuen. Ni baino helduagoa den pertsona bati nola planteatu futbol partida bat ikasi nuen, edo nire adinekoa den bati zer ahal diodan egin nik irabazi ahal izateko. Hori izan zen gehien ikasi nuena.

Futbolak prentsa txarra du: balore okerrak sustatzen dituela, matxista dela... horrenbeste al da?

Nire ustez ez. Prentsak min handia egiten du. Emakumezkoen futbolak duela gutxi egin du booma, eta horregatik zenbait sektoretan oraindik futbola gizonetzat ikusten da; hor sartzen dira entzuten diren aipamen matxiruloak. Nik Lagun Artean ez dut sekula inolako aipamenik entzun, eta nesken taldeetan laguntasun handia dugu. Ez dut inolako jazarpenik bizi.

Lekunberritik Gasteizko Aurrera taldera joan zinen.

Ainhua Agirre olaztiarrari eta bioi deitu ziguten Aurreratik. Harrotasun puntua izan zen,



"ARABAKO KOPA IRABAZTEA AMETSA IZAN ZEN. BI TALDE FINALISTEK BATERA OSPATU GENUEN"

Ziordiko Lasterketa Solidarioak 170 korrikalari espero ditu

ATLETISMOA Biharko lasterketan parte hartzeko helduek 4 kilo elikagai eta haurrek 2 kilo eraman beharko dituzte

M.B.G. ZIORDIA

XII. Ziordiko Lasterketa Solidarioa ekainaren 28an, larunbatarekin, jokatuko da. Haurren lasterketa 17:00etan hasiko da -lau kategoria daude-, 17:30ean 2,5 km-ko martxa solidarioaren txanda izango da, eta 18:00etan helduen proba nagusia, 6,8 km-koa (zirkuituari hiru itzuli). Beroa izango da arerio nagusia.

Ziordiko Running taldeak 170 korrikalari espero ditu, 130 heldu eta 40 haur inguru. Izena ematearen truke, helduek 4 kg elikagai eta haurrek 2 kg elika-

gai eraman beharko dituzte, Paris 365 jantoki sozialera bide-ratuko direnak. Horretaz gain, Aurrera Markelekin fundazioaren aldeko zozketa solidarioa egingo da, Markel Carmona GNA01 gaixotasun ultra arraroa duen haur urnietarra laguntzeko. 56 sari zozketatuko dira euro bateko prezioan saltzen ari diren txartelen truke.

Aurten talde berria lagunduko du Ziordiko lasterketak: Nafarroako AGO Sindromea Elkartea. 6 urteko Uxue nafarrak du Argonauta Sindromea, AGO1 eta



lazko parte hartzea ederra izan zen.

AGO2 geneetan ematen diren aldaketek sortutakoa. Ondorioz, garapen motorean atzerapena du, hitz egiteko arazoak eta desgaitasun intelektuala. Elkartearen alde hamasei sari zozketatuko dira.



Ane Campo ikurriña eusten, Dulantzik kopa irabazi eta ondorengo ospakizunetan. UTZITAKOA

"Futbola hobbya baino gehiago da, bizitza eramateko modua"

ANE CAMPO FLORES DULANTZI FUTBOL TALDEKO JOKALARIA

FUTBOLA Zentral lakuntzarrak Arabako kopa irabazi du Dulantzi futbol taldearekin

oso maila ona duen taldea baita. Beti Kozkorrekoekin hitz eginda, esperientzia bizitzera joatea erabaki genuen; bi urte egon nintzen Aurreran, eta ez naiz damutzen, futbolari gisa asko ikasi nuelako. Lehengo urtea Liga Vascan jokatu genuen, baina bigarren urtean talde nagusiarekin maila Nazionalean jokatu nuen. Teknikoki pila bat hobetu nuen, eta futbolaraz transmititzen zidaten guztia barneratu nuen. Jokatzeko modua ezberdina zen. Nafarroan fisikoagoa da, eta Aurrerarekin gehiago jokatzen zen motzean. Tamalez, urte sabatikoa izan nuen; eroriko baten ondorioz buruan lesioa izan nuen.

Osatu ondoren, denboraldi honetan Dulantzin aritzea erabaki zenuen.

Gasteizen ikasten dut, eta gertuko talde batean aritu nahi nuen. Dulantzin nesken taldea sortu nahi zutela esan zidaten klubetik. "Dulantzin, aitaren herritik gertu. Gasteiz eta Lakuntzaren bide erdian, zergatik ez?" animatu nintzen. Arabako erregionalean jokatu dugu.

Zer moduz joan da liga?

Hasieran kopako hasierako ligaxka jokatu genuen. Irabazten hasi ginen, sentsazioak onak ziren, eta finalera sailkatu ginen. Ondoren, liga hasi zen. Oso emaitza onak lortu genituen, bigarrenak sailkatu bakara erregionalean. Tamalez, igoera fasean bigarren izan gara, ez gara igo. Tarte horretan, maiatzaren 3an kopako finala jokatu genuen Gasteizko Iru Baten kontra.

Kopako finala jokatu, eta irabazi!

Amets bat bezala izan zen. Biak talde txikiak gara, eta Betoñon finala jokatzea oso polita izan zen. Zelaia urdinez eta zuriz bete genuen. Herri guztia etorri zitzaigun animatzera. Finala po-

lita izan zen, baina sufritua. 3-1 irabazi genuen. Jendeak esaten zigun "3-1 irabazi diozue Iru Bati". Kurioso izan zen. Bazkariaren ondoren Iru Batekoekin topo egin genuen. Gau osoa eman gunuen elkarrekin, giro onean.

Datorren urterako, zer?

Dulantzikoek nirekin kontaktzen dute, eta historia aldatzen ez bada bertan ilusioz jarraitzeko gogoak ditut. Ea beste koparen bat ekartzen dugun (kar-kar). Gu baino gorago Liga Vascako taldeak daude. Deiak jaso izan ditugu, baina momentuz lasaitasuna da nahi duguna, gustura jokatu dugulako Dulantzin eta futbolaraz sentimendu horretaz disfrutatu nahi dugulako. Baina nork daki!

Lagun Artean nesken taldea sortu nahian dabilta. Lakuntzan nesken talde bat ikustea zuretzako...

... sekulako ilusioa litzateke. Nire ametsa izango litzateke futbolaraz disfrutatzen nire herrian bukatzea. Hemen bukatzea. Azken finean, Lagun Artean zazpi urte egon nintzen, eta anaiak hemen jokatzen du. Beti onena espero dut Lagun Artearendako, ea taldeak aurrera egiten duen.

Zuretako futbola zer da?

Bizitza eramateko modu bat. Nire astea futbolaraz enfokatuta dago, beti. Asteburuan beti futbola da lehenengo gauza: noiz daukat futbol partida, eta zer denbora libre daukadan. Futbola hobby bezala hartzen du jendeak, baina niretako hobby bat baino askoz ere gehiago da: modu batean edo bestean, nire bizitza futbolaraz lotuta ikusten dut beti. Futbola poztasun handiz bizitzen dut. Futbolariaz futbola utzi behar duenean, sekulako mina ematen du, tristuraz egiten den ekitza da.

ZURE PUBLIZITATEA



Informazio gehiago:
948 564 275 | 661 523 245 | 619 821 436
publi@guaixe.eus | publizitatea@guaixe.eus
guaixe.eus/publizitatea/

HEMEN

guaixe
fundazioa



Joseba Ezkurdiak pilotariak adi-adi eta oso eskertuta jarraitu zituen berari buruz esandako guztiak.



Arbizuko pilotalekua bete egin zen herriko semea behar bezala omentzeko.

Arbizuko boleistari omenaldi beroa

PILOTA Arbizuko herriak omenaldi polita egin zion Joseba Ezkurdiari kiroldegiaren antolatutako pilota jaialdian, pilotari arbizuarra gorenean dagoela. Jaialdi berean Unai Matak bere azken partida jokatu zuen Asperekin, eta pilotarien aitortza jaso zuen

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU Bero zegoen larunbatean Arbizuko pilotalekua, baina oraindik ere beroagoa izan zen Arbizuko herriak Joseba Ezkurdiari egindako omenaldia. Bihotzetik ateratzen dena. Hasteko, Irurtzun klubeko Igoak eta Olaetxeak lau eta erdian jokatu zuten. 18-15, bigarrena gailendu zen. Ondoren

hasi zen Ezkurdiaren omenaldia. Katrin Gineak ongi azaldu zuen moduan, Arbizun hasi zen Ezkurdiaren ibilbidea, eta tarte honetan sei txapel ekarri ditu jaioterrira, binakako hiru, eta lau eta erdiko beste horrenbeste. Aurten zendutako Martin haren aita izan zuten gogoan, baita ere Julio Soto lehengusuak eskerrak

eman zizkion Josebari, bertsoan: "... baizik erori aldiro, zutik jartzen zarelako, bejondeizula zuri ta, makina bat eskerrik asko, hainbeste momentu eder, ematen diguzulako".

Ezkurdia-Gaskuek 20-22 galdu zuten Zabala-Bikuñaren kontra, eta Mata-Erostarbe 14-22 erori ziren Murua-Gabirondorekin.



Aldabide pilota klubak Arbizuko zilarrezko barkilloa oparitu zion.



Ezkurdia, jaialdian parte hartu zuten pilotariak eta Aldabidekoak talde argazkian.

"Joseba pilotari handia da, eta pertsona hobea"

LINO ARRUTI EZKURDIAREN LEHEN ENTRENATZAILEA

Lino Arruti eta Joxe Mari Berastegi Joseba Ezkurdiaren lehen entrenatzaileak izan ziren Arbizuko Aldabide pilota klubean.

Lino Arruti, zenbat urte Aldabiden pilotariak trebatzen?

Gutxi gorabehera 22 urte inguru. 2019an utzi nuen, eta gazteek hartu dute lekukoa. Talde polita dago.

Hasieratik ikusi zenuten Josebak urrutira iristeko dohainak zituela?

Ez nikion aparteko dohainak ikusten, argi esango dizut. Orduan bazeuden beste pilotari batzuk: Bergera, Ansotegi, Lukin... Josebak atzelari gisa jokatzen zuen, eta ez zuen horrenbeste destakutzen. Baina oso langilea zen, eta segi, segi, segi... Gure aurrelari bat beste klub batera joan zen, eta orduan Joseba aurrean jarri nuen. Hori



ikusgarria izan zen: Ezkurdiak booma egin zuen. Hala izan zen. Duen bolea hori horregatik dauka, atzelaria zelako eta lauean edo bostean jarri eta beti bolean zebilelako. Joseba boleista arbizuarra da. Duen bolea hori bere arma da.

Sarritan ongiatorriak egin dizkiozue Ezkurdiari, baina honetan merezitako omenaldia, gainera, gorenean, sasoiaren dagoenean. Hau ez da agur bat.

Ezta pentsatu ere! Nik uste dut oraindik etorriko direla beste txapel batzuk, Joseba oso ongi dagoelako, jaitsi denik ez dut ikusten. Aurten Binakakoan txapeladuna geratu zen Rezustarekin batera, eta horregatik omendu nahi du herriak, merezi duelako. Sekulako mutila da: pilotari handia, baina pertsona bezala izugarria, noblea.

Binakako azken txapela Arbizun ospatu zen, baina berehala aitaren heriotza gertatu zen eta sentsazioa, gazi-goza.

Oso arraroa. Txapela irabazi, txapelarekin ospitalera joan, aitaren ondoan eseri, eta hurrengo egunean aita hiltzea... gogorra.

Omenaldia oso polita izan da.

Aldabiden 23-24 neska-mutiko trebatzen dira pilotan, etorkizuna hor dago. Pasilloa egin diote Josebari, gero aureskua... Joxe Marik eta biok txapela eman diogu, udalekoek eta kuadrillakoek oroigarriak eta Aldabidekoek Arbizuko zilarrezko barkilloa, nire ustez, oparirik bereziarena. Betirako geratuko zaio opari hori, ziur. Pilota jaialdi ederraz gozatu dugu festen bezperetan. Sekulako giroa dago. Ezkurdiak familia handia du, eta guztiak etorri dira. Julio Soto lehengusuak bertsoa kantatu dio... oso polita izan da.

Hunkitu zara, ezta?

Nola ez naiz hunkituko? Ilusio handia da. Ez nuen pentsatzen Baztanetik Arbizura bizitzera etorrita halako familia bat aurkituko nuenik, ezkurdiatarrena: Mila, Martin, Mattin, Maitane, Joseba... familia dira. Bestalde, kontratua berritu behar ez dioten Mata pilotaria omendu dute pilotariet, eta hau ere hunkigarria izan da.



EZAGUTU GURE IDEIEN EZTANDA

gk
DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

948 564 275 | info@gkomunikazioa.eus | Foru plaza, 23-1. Altsasu

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 27

ALTSASU Batzarra.

Dantzaleku Sakana elkartearen Sakanako korrikalarien bilera irekia, korrikalari guztiak elkartzeko, taldekideak izan edo ez.

18:00etan, Gure Etxean.

IRURTZUN Kontzertua.

Haize Txikiak bandaren kontzertua: plaza dantzak dantzariekin.

19:30ean, Gernika plazan.



LARUNBATA 28

ZIORDIA Herri lasterketa.

XII. Ziordiko herri lasterketa solidarioa. Paris 365, KM X ELA eta Aurrera Markelekin ekimen solidarioak lagunduko ditu eta AGO Sindromea Elkartearekin kolaboratuko du. Ziordia Running eta Ziordiko Udalak antolatuta.

17:00 Haurren lasterketa: 2 kilometro.

18:00 6,8 kilometro.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

Haize Txikiak bandaren kontzertua: plaza dantzak dantzariekin.

19:30ean, plazan.



INSTAGRAM

IRURTZUN Cocoli Aretaren Pirograbatuen erakusketa.
Ekainaren 16tik aurrera. Pikuxar tabernan.

IGANDEA 29

ETXARRI ARANATZ Mendi lasterketa.

XI. Triku Trail mendi lasterketa: 21 kilometro (1.300 metroko desnibela) eta 10 kilometro (565 metroko desnibela). Pobra luzea Nafarroako Mendi Lasterketen Rankingerako puntuagarria da.

09:30ean, kanpinetik.

ASTELEHENA 30

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.

12:00etan, Zumalakarregi plazan.

Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioseviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erausketa Irurtzunen


OROIGARRIA

**Aitzarte
Barandiaran
Garcia**V. urteurrena
(Ekainaren 21ean)Zure argiak betiko distiratuko du,
zure grina eta kemena beti egongo dira
gure oroimenean.


Zure familia

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 27




Larunbata, 28



Igandea, 29



Astelehena, 30

**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**

edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70 €
prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 12:00ak
baino lehen.

IRAGARKI SAILKATUAK

SALGAI

**Baserriko teila zahar-
rrak salgai:** Egoera eta
prezio onean. Interesa
baduzu, deitu 606 299
457.

GALDUTAKOAK

**Pitti katua galdu da
Etxarri Aranatzen:**
Bureina kalean bizi da
eta ebretik maiztaren
27tik falta da, gris
kolorekoa, oinak
buriak, mikrotxipa
darama lepoan eta
esterilizatua dago.
Katuaren argazkia
www.guaixe.eus/
iragarkiak/ loturan.
Ikusi baduzue,

mesedez, 627 139
661 telefonora deitzea
eskertuko genizueke.

OHARRA

**Olaztiko Udalak ze-
zensuzkoa eramateko
izen emate deialdia
zabaldu du:** Baldintzak
eta izen emateak Olaz-
tiko Udaletxean.

**Arakilgo Udalak haur
eta nerabeendako uda-
ko eskaintzan izena
emateko epea zabaldu
du:** Ordutegiak eta infor-
mazio osagarria [www.
arakil.eus](http://www.arakil.eus) web orrian edo
udaletxean.

**Olaztiko Santa Ana
festetan joan den ur-**

**tean jaiotako haurrek
zapia jaso ahal izateko,**
izena eman behar dute
udaletxean.

**Etxarri Aranazko Udak
Musika Eskolak matri-
kulazio epea zabaldu
du:** Informazio gehiago
udaletxean edo [www.
etxarriaranatz.eus](http://www.etxarriaranatz.eus) web
orrian.

**Etxarri Aranazko abes-
batza txikian izena
emateko epea zabalik:**
6 - 15 urte bitarteko haur
eta gazteentzat.

Udan ere Mintzakide:
Udan ere mintzataldeak
osatuko ditu AEK-k,
dohainik dira, animatu!!

**AEK-k euskaldun bat
behar du** Sakanan udan
beste euskaldun batzue-
kin euskaraz aritzeko,
deitu 600 482 024 tele-
fonora.

IKASTAROA

**Ergoienako Udalak
datorren ikasturterako
ikastaroetan izen ema-
tea zabaldu du:** Yoga,
hipopresiboak eta esku-
lan tailerra ikastaroak
antolatu ditu. Ordutegiak,
baldintzak eta izena
emateko udalarekin har-
remanetan jarri.

Arbizuko Udalak udako
tailerretan izena emate-
ko epea zabaldu du: in-

formazio gehiago Udale-
txean edo [www.arbizu.
eus](http://www.arbizu.eus) web orrian.

**Uharte Arakilgo Udalak
herriko kultura, kirol
eta gizarte entitateei
zuzendutako dirula-
guntza deialdia egin
du:** Deialdiaren oinarriak
www.uhartearakil.eus
web orrian.

**Uharte Arakilen hau-
rrendako udako aisialdi
programan izena ema-
teko epea zabalik:** Udan
Euskaraz oportetako
euskararen arnagunea
eskaintza prestatu du.
Informazioa udaletxean.

**Etxarri Aranazko Uda-
lak herriko entitateei**

**zuzendutako dirula-
guntzen deialdia egin
du:** kultur, kirol eta jen-
darte entitateei dirula-
guntzak emateko deial-
dia zabaldu du. Informa-
zio gehiago www.etxarriaranatz.eus web
orrian.

**Altsasuko Udalak ira-
bazi asmorik gabeko
entitateendako lagun-
tzen deialdia zabaldu
du:** Deialdiaren oinarriak
www.altsasu.net web
orrian.

**Olaztin Udak Euskaraz
kanpainen izen ema-
teko epea zabalik:**
Garagarrilaren 23tik
garilaren 18ra izanen da,

Lehen hezkuntzako hau-
rrentzat. Informazio
gehiago Olaztiko udale-

txean edota 948 012 012
telefonora deituz.

**Iturmendin mintzakide
taldea sortu dute:** Os-
tegun arratsaldetan,

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Astearteko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko astearteko 13:00ra arte.

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es



Etorkizuna dantza taldeko kideak 'XUT' ikuskizunean. BIHOTZ BERISTAIN



'XUT' ikuskizunaren une bat. BIHOTZ BERISTAIN

Euskal dantza aldarrikatuz

Etorkizuna dantza taldeak 'XUT' dantza ikuskizuna egin zuen ekainaren 20an, lortia kultur gunean. Haren bidez euskal dantza aldarrikatu nahi zuten, tradizioa eta berrikuntza uztartuz

ALTSASU

Etorkizuna dantza taldeak *XUT* dantza ikuskizuna mustu zuen ekainaren 20an, ostirala. Euskal dantza "bizirik diharduela" aldarrikatu nahi zuten ikuskizun honekin; "gure hizkuntzan lau

gauza desberdin izendatzeko hitz bakar bat erabil dezakegu eta, aldi berean, gauza bakar bat izendatu lau hitz desberdin erabiliz". Horietako bat da *Xut*, *Zutik* esan nahi duena. Tradizioa eta berrikuntza uztartu zituzten.

Ikuskizunaren zuzendari artistikoa Iñaki Agirre dantza taldeko eta euskal dantza eskolako irakaslea eta koreografoa izan zen, jantzigintza Maddi Beltzak egin zuen eta dantzariak Etorkizuna dantza taldeko kideak izan ziren.



'XUT' ikuskizunaren une bat. BIHOTZ BERISTAIN

Etorkizuna dantza taldeko hainbat dantzarik Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako *Ttakun*

ttakun ikuskizunean parte hartu zuten ere, artista gonbidatu bezala.

Haize Txikiak bandaren dantzaldi handia

Udako bi kontzertu emanen ditu banda txikiak: gaur eta bihar, Irurtzunen eta Etxarri Aranatzan

SAKANA

Ekainaren 27an eta 28an, Irurtzungen Gernika plazan eta Etxarri Aranazko plazan, hurrenez hurren, Haize Txikiak bandaren kontzertua izanen da. Bi emanaldiak 19:30ean izanen dira, eta

aurten Dantzaldi handia proposatu dute; beraz, nahi duen orok parte har dezake, eta bandatik plazak "dantzari beteta" ikusteko deia egin dute.

Banda txikia Sakanako Musika Eskolako kideak elkar ezagutze-

ko egitasmo bezala sortu zen. Normalean bost eguneko topaketak egiten dituzte, baina aurten sanjuanak eta sanpedroak direnez, hiru egunetako egin dute, entsegu orduak luzatuz. Gainera, aurreko urterako prestatutako kontzertua egingo dute, azken unean bertan behera utzi behar izan zutena.

Banda batek kontzertu "serioak" ez ezik, beste motatako emanaldiak egin ditzakeela erakusteko sortu zuten aurten egingo duten Dantzaldia.



Haize Txikiak bandako kideak entseguan. UTZITAKOA



UTZITAKOA

Max Sariatán dantzan

Laida Aldaz artista etxarriaren La Faktoria dantza zentroaren dantzariak Max Sariatán parte hartu zuten koreografia batekin. Dantzarien artean Saioa Iraizoz (irudian ezkerrean) altsasuarra zegoen. La Faktoria-tik esan zuten, "ohore" bat izan zen arte eszenikoak sustatzen duen ekitaldian parte hartzea.



KOLABORAZIOA

ANNE AZKONA UNANUA

Loaren kalitateak gosean duen eragina

Bazenekien zure loaren kalitateak, zure gose hormonak kontrola ditzakeela? Hau hobeki ulertzeko, bi protagonista hauen inguruan hitz egingo dugu, Leptina eta Grelinaren inguruan hain zuzen.

Leptina, asetzearren hormonari deritzo. Gantzako zelulek jariatzen dute, eta garunari ase gaudela eta jatez gelditzeko mezua bidaltzen diote. Grelina aldiz, gosearen hormona da. Urdailean sortzen da eta garunari janaria bilatzeko mezua bidaltzen dio. Hau da, Grelina maila otorduen aurretik handitzen da. Lo gutxi edo gaizki egiteak leptina mailak gutxitzen ditu eta grelina handitzen du, gose gehiago eta asetasun sentazio gutxiago izatera bideratuz.

Zazpi edo zortzi orduko eta tarteka esnatu gabeko loaldiak lehenetsi behar dira, deskantsua kalitatezkoa izateko. Lotan gauden bitartean gure immunitate sistema indartu egiten delako, sistema hormonalak erregulatu da: estresaren hormona barne (kortisola), garunak oroitzapenak ordenatzeko, kontzentrazioa hobetzeko eta emozionalki orekatuta mantentzeko aprobeztatzen du,

burmuinean metatutako toxinak ezabatzen dira...

Baina zer gertatzen da lo gutxi egiten dugunean? Grelina (jateko oihuka dagoen hormona) handitu egiten da, eta bitartean Leptinak (nahikoa dela dioena) oporrak hartzea erabakitzen du.

Hormonen desoreka honek, gose gehiago, elikagai hiper-palatagarrien antoju gehiago... izatera bideratzen gaitu, eta ondorioz, zailagoa egiten du pisu osasuntsu bati eustea. Gainera, lo gutxi egitea, gaueko gosea handitzearekin lotzen da ere. Gauean, zeezer jateko sortzen den "gose sentazio" horrek bere azalpen hormonalak dauka beraz.

Egunero 7-8 ordu artean eta tarteka esnatu gabe lo egiteak, apetitua erregulatu eta pisuaren kontrola hobetzen laguntzen dizu, eta emozio eta hormona batean bizitzea ere saihesten du. Ez gutxietsi atsedean gau on baten garrantzia.

Laburbilduz, Grelina eta Leptina gosearen yin eta yang bezalakoak dira: batek jateko esaten dizu, besteak gelditzeko. Baina gaizki lo egiten baduzu, oreka hori galdu egiten da, eta zure gorputzak ez du ulertzen janari-gosea duen... edo atsedean-gosea / falta duen.

"Gala amets bat izan da; baita pixka bat surrealista ere"

EVA AZPILIKUETA ANTZEZLEA

Alfonbra gorritik eta photocalletik pasa eta sari bat eman zuen aktore altsasuarrak Iruñean ospatutako Max Sariatán. Lanari "errekonozimendua" dela esan du

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Ekainaren 16an Iruñeko Gayarre Antzokian Arte Eszenikoen XXVIII. Max Sariak ospatu ziren. Max Sariak espainiar estatuan urtean zehar egin diren arte eszenikoen lanak saritzen ditu; hau da, esan daiteke Max Sariak arte eszenikoen Goya sariak dirrela. Iruñean ordezkaritza sarkandarra izan zen: Eva Azpilikueta aktoreak sari bat eman zuen, eta Laida Aldaz etxarriaren La Faktoria dantza zentroko dantzariak pieza bat dantzatu zuten, tartean Saioa Iraizoz dantzari altsasuarrak parte hartu zuen. Guztira, 33 lan izendatuta zeuden, eta 21 sari banatu ziren. Azpilikueta "oso pozik" dago esperientziarekin, eta oso eskertuta horrelako gala bat Iruñean ospatzeagatik.

Nola jakin zenuen Max Sariak Iruñean egingo zirela?

Gure artean gauzak hauek komentatzen dira; Max Sariak Iruñea, ze ilusioa! Hasi ginen pentsatzen ea nola antolatuko zuten, eta oso emozionatuta geunden. Horrelako jaialdi bat, maila honetakoa, Iruñera ekartzea zoragarria da. Orduan, espektatibarekin geunden. Egia esan, ni oso lasai nengoen denbora handiarekin esan zutelako. Albitea bazegoen, baina ahaztu egin zitzaidan. Orduan, jaialdiko zuzendariaren dei bat jaso nuen, Ana Maestrojuan, aurretik berekin lan egin izan dudana,

eta parte hartuko nuela esan zidanean asko emozionatu nintzen. "Nola? Deitu didate? Hau egia da?". Gero SGAEko ordezkariarekin harremanetan jarri nintzen arte ez nuen guztiz sinistu; azkenean, baiezkoa jaso nuen. Niretako opari bat izan da. **Sari bat entregatu zenuen, ezta?** Bai, ni entregatzailea nintzen. Talde desberdinak geunden; alde batetik, galaren haria eramaten zutenak, nolabait aurkezlearen papera egiten zutenak eta hor pieza txikiak egiten zituzten, abestu, dantza... Denak nafarrak ziren; denak lankideak, guztiekin lan egin izan dut. Entregatzaileen artean kanpoko jendea zegoen ere; Madriletik eta abar etorri ziren. Jose Maria Asin eta biok ginen entregatzaileen artean nafar bakarrak.

Zein sari eman zenuen?

Camila Villuelarekin batera, Pepe Villuelaren alaba, ilusio izugarria eman zidala bere aitaren fan-a naizelako, eta orduan oso guay egon zen; bera eta bere anaiaren ondoan eserita nengoen, eta pentsatzen nuen: "Ze barre-garria; hau surrealista da". Oso neska jatorra da. Bi sari eman genituen, bloke bakoitzean bi sari ematen zirelako. Nik Kaleko ikuskizun hoberenaren saria eman nuen, eta Camilak Familiarteko eta Haurrendako ikuskizun hoberenaren saria. Kamchatka konpainiaren Fugit lanari eman nion saria, eta ilusio

handia eman zidan konpainiaren oso zalea naizelako, oso jatorra izan ziren, eta haien diskurtsoa apurtzaileena izan zen.

Nola izan zen alfonbra gorritik pasatzea?

Egia esan, oso urduri joan nintzen. Ez bakarrik urduri emozioagatik; urduritasuna eta emozioa ziren, aldi berean. Ezagutzen dudan jendea zegoen. Lotsa handia eman zidan ere; asko. Nik askotan esan dudana bezala aktorea naiz eta pertsonaia egiten ari naizenean oso eroso nago, baina ni naizenean, Eva Azpilikueta naizenean, gehiago kostatazen zait. Gainera, hedabide guzti-guztiak zeuden... Entsegura joan nintzenean eta dagoeneko zenbat mugitzen den eta zenbat medio dauden ikusi nuenean konturatu nintzen oso potentia zela; hau handia izan behar da pentsatu nuen. Bada-

"OSO BARREGARRIA IZAN ZEN, BAITA OSO TEATRALA ERE; JENDEARI GUSTATU ZITZAION"

"PERTSONAIA BAT EGITEN OSO GUSTURA NAGO; NI NAIZENEAN GEHIAGO KOSTATZEN ZAIT"



Eva Azpilikueta antzezle altsasuarra, erdian, lankideekin Max Sarietako photocallean. UTZITAKOIA

kizu, baina hor barruan egon arte ez zara guztiz kontziente. Oso barregarria izan zen, baita oso teatrala ere. Gala bat da non zure lankide guztiak oso dotore ikusten dituzun, ia ez dituzula ezagutzen. Normalean maiak jantzita ikusten garenez, hain dotoreak ikustea, alfonbra gorrian, photocalla pasatzen... Etxean esaten nuen: "Baina photocallaren hau zer da? Posatu beharko dugu...". Horretara ohituta dauden aktoreei ere kostatzen zaie. Ane Pikazarekin egon nintzen, aurreko urtean Max Sari batera izendatu zuten, eta bera ere urduri zegoen. Posatzen geundenean txantxetan esaten genuen: "Ze tentsio gutxi!". Oso guay da, amets bat bezala, nork ez du nahi horrelako zerbaitetan parte hartu? Ez dakizu noizbait berriro errepikatuko den. Amets bat, eta aldi berean egoera pixka bat surrealista.

Nolako izan zen entsegua? Benerako saridunak esaten dira?

Ez, ez. Simulakro bat egiten da. Dena oso antolatuta dago, eta iristen zarenean zuzendariarekin hitz egiten duzu, produkzio taldeko kideek hemendik hara eramaten zaituzte eta dena oso ongi azaltzen dizute. Orduan, gora igo eta esaten dute: "Orain!". Produkziojende pila batek lan egiten du, eta pautak oso argi azaltzen dizkizute. Hau eta hau esan behar duzu, jarri behar zara hemen eta

abar. Telebistan eman zuten, eta telebistan denborak ez dira antzerkian bezain naturalak; pausak egoten dira, gehiago itxoin behar duzu... Plataforma izugarria izan zen eta eszenaratzea ere espektakularra iruditu zitzaidan. Bestela, gure artean esaten genuen ea ez genuen esatezu egiten eta ez ginen errotzen; entseguan deabru guztiak agertzen ziren. Camilarekin barre egiten nuen, eta erortzeko zeuden arrisku posibleak identifikatu genituen. Gutunazala lehenengoan ez irekitzeko beldur ere ginen.

Gala ikusteko aukera izan zenuten?

Entregatzaileak ez ginen kamerinoetan gelditu. Entregatzaileek butaketan gure tokia genuen, atearen oso ondoan geunden, eta tokatzen zitzaigunean, hamar minutu lehenago gutxi gora behe- ra, gure bila etortzen ziren eta ateratzen ginen. Aurkezlearen papera egin zutenak atzean gelditzen ziren, baina telebistaren bidez jarraitzeko aukera izan zuten. Ni publikoan eserita egon nintzen galaz disfrutatzen. Izugarri polita iruditu zitzaidan.

Euskara asko entzun zen.

Oso keinu polita iruditu zitzaidan. Oier Zuñigak eta Ane Saguesek aurkezten zuten, eta euskaraz egiten zuten. Bi aktore handiak dira, gazteak, eta orain lan asko egiten ari dira. Gorka Urbizu agertu zen ere. Jendearen gus-

tukoa izan zen; kanpoko jendeak ere eskertu zuen keinua. Jendeak esaten zuen oso polita izan zela hau eta bestea. Oso arina izan zen; dena bere neurrian zegoen. Baziren gauzak gehiago igotzen zutenak eta beste batzuk jaisten zutenak. Sariak modu oso arinean ematen ziren, eta nik uste izan zela oso ongi antolatuta zegoelako. Modu baikorrerako harritu zidan. Polita da sorpresa mantentzea jendeak disfruta dezan.

Aurretik zerbait esan zenuen?

Gure artean elkar ezagutzen dugunez bagenekien nor egongo zen. Egia esan, nik berandu jakin nuen. Banekien galan egongo nitzela eta sari bat emango nuela. Sariarena nahiko argi nukan, eta ia bukaeran konfirmatu zidaten. Antolakuntza aldetik lan handia egiten dutenez, denborak errespetatzen ditugu. Bertan egotea tokatu zaigunean badakigu errespetatu behar dela badelako jende asko. Ez zen esan ezin zela esan, baina enteratzen zara enteratu behar zaren tokian.

Nola izan zen janztearena?

Horretarako elenku handi bat daukat: nire ahizpa eta izebak. Ahizpa nirekin etorri zen eta niretako oso berezia izan zen ahizpa zerbait hain garrantzitsuan nirekin egotea. Honekin ikusten da egiten ari naizena, lanaren fruituak jasotzen ari naizela, eta aktore bezala erre-

konozimendua oso garrantzitsua da. Ogibide honetan badirudi batzuetan horrelako zerbait gertatu behar dela, baina ez du zertan. Errekonozimendua oso polita da, eta nirekin kontatu izanagatik ere oso eskertuta nago; ezin izan ginen denak egon. Ni aukeratutetako bat izateagatik oso eskertuta nago; oso pozik.

ETORKIZUNA

Zer daukazu etorkizunerako?

Datorren urtea ziurtatua daukat. Puntu Gunean jarraituko dut; sorkuntza zentro bat da. Arte eszenikoak eta gazteak biltzen dituen Latxa topaketaren bigarren edizioa egingo dugu, eta pixkanaka sustraitzen ari da. Gero, bertan dagoen konpainiarekin jarraituko dut, Yarleku. Ikuskizun guztiarekin jarraitzen

"OSO GUAY DA, NORK EZ DU NAHI HORRELAKO ZERBAITETAN PARTE HARTU?"

"AHIZPA NIREKIN ETORRI ZEN, ETA OSO BEREZIA IZAN ZEN MOMENTU HORRETAN NIREKIN EGOTEA"

dut, eta orain zuzendaritza proposamen bat daukat. Oso pozik nago horrekin ere. Pixkanaka mundu horretan sartzen ari naiz. Zizurren helduen taldearen zuzendaria bi urtez izan naiz, eta seguruenik hirugarrenarekin hasiko naiz; Haize Berriak bandarekin egindako Mainami-kirri; Nafarroako Antzoki Eskolatik ikuskizun bat zuzentzeko eskatu zidaten eta orain beste batek bere lana zuzentzeko eskatu ditu eta oso pozik nago. Aldi berean, errespetu handiarekin hartzen dut; errespetua da hitza, baina asko disfrutatzen dut alde horretan ere. Yalerkurekin Peter Pan estreinatuta berri dugu. Katalanekin sortutako elkarlanaren bidezko lan bat da; Etixerik txikiena Kariguri konpainiarekin elkarlanean bertan egin zuten, eta orain beste konpainia baten Peter Pan ikuskizuna guk hemen euskaraz egingo dugu. Ez da bakarrik Peter Panen istorioa; adineko jendearen errespetuari buruz hitz egiten da ere. Txotxongilo antzerki bat da, eta mundu hori berria da niretako; ez ditut landu. Espero dugu Euskal Herri osotik eramatea.

Aurreko lanak arrakastatsuak izan dira, ezta?

Bai. Etixerik txikiena eta 104. haurra; oraindik bi horiekin jarraitzen dugu, eta orain Peter Pan gehitu behar diogu. Abuztuan beste kolaborazio bat lantzen hasiko gara.

Erronkaz erronka.

Bai, eta ez gelditzeko. Gogo handia dut gauza berriak egiteko. Duela gutxi Borja Ruizekin tailer bat egin nuen Nafarroako Antzoki Eskolan, eta entrenatzeko beharra daukat. Norberaren tresnetatik tiratzen dut, baina esploratzeko beharra dut. Tailer gehiago egin ditut eta jakinmin gehiago sortzen da. Nik ere zerbait sortu nahi dut, eta horrekin hasi naiz. Dantzarekin ere topera nago. Zaletasun bezala, baina nire lanerako tresna bezala asko laguntzen dit. Etengabe ikasten ari naiz. Bikoizketa lan pare bat sor zaizkit ere; euskarazko ipuin batzuk, eta ni nafarra naiz, ahuntza. Oso dibertigarria izan da eta asko ikasten ari naiz. Dramawalker egitasmoan parte hartu nuen ere, Ana Maestrojuekin, Gayarren. Gauza berriak ikasten ari naiz, eta helduendako lan egiteko gogoia daukat ere, eta horretarako bila ari naiz.



Edurne Ustarroz Goñi eta Ania Lakuntza Pellejero Sakana Groupen bulego eraikineren ondoan. UTZITAKOIA

"Etorkizuna izateko denek beretik eman zuten"

Sakana Groupek bere 50. urteurrenerako 'Ametsak burni bihurtuz' dokumentala prestatu du. Lakuntzako kultur etxeak hartu zuen ikus-entzunezkoaren mustutzea atzo. Horretaz hizketatu gara Edurne Ustarroz Goñi eta Ania Lakuntza Palazuelosekin

A.A.I. LAKUNTZA

1 Zer sentitzen da 50 urte bete dituen enpresan lan egitean?

Edurne. Poza, honen parte izateagatik. Baita erantzukizun handia ere. Kooperatiba bat gara. Gu hemen gaude beste batzuk hau utzi zigutelako.

2 Dokumentala, zergatik?

E. Batetik, garrantzitsua ikusten genuen duela 50 urte hau sortu zutenen testigantza hartzea, ez galtzeko. Beraiei aitortza egin, edo esker ona azaltzea. Batzuk ez daude hemen, baina beraien familiak bai. Bestetik, ez dugu nahi dokumentala lehengokoan gelditzea. Atzera begiratu etorkizunera esperantza eta indarra hartuta segitzeko. Kooperatibista gisa gure eginkizuna da lekukoa hartu, jaso eta enpresa ondoren etorriko direnei ahalik eta hobekien uztea.

3 Zer garrantzia du zuendako enpresaren historia-memoria jasotzea?

E. Hemen denbora gutxi daraganok epe motzeko optikarekin ikusten dugu. Ikuspegi zabalagoa izatea garrantzitsua da ikusteko zer zailtasun handiak izan zituzten. Baina zailtasun haien aurrean denek beretik eman zuten etorkizuna izateko.

4 Historia horren transmisioa langileen artean behar da?

E. Oso garrantzitsua da. Batzuetan iruditzen zaigu azken urteetan transmisio hori ez dugula hasierako bezala bermatu. Urteurren ospakizunean hausnartu nahi genuke zer egin den, zertan ari garen eta zer egin beharko genukeen honek gutxienez 50 urte irauteko.

5 Zuek nola jaso duzue?

E. Hasieran egon ziren batzuegandik zer edo zer jasotzeko aukera izan dut. Duela 10 bat urte jubilatu eta urte latz-latzak pasa zituztenekin elkarlanean egoteko aukera izan dut. Azkenean hori barrura sartzen zaizu.

Ania. Nire aita sortzaileetako bat izan zen. Hemen lanean hasi baino lehen jaso nuen. Etxean gauzak entzuten dituzu. Gainera, urte oso gogorrek pasa zituzten hasieran. Eta lanean urte askoz sortzaile askorekin bat egin dugu, eta hemen urte asko pasa dituzten lankide pilarekin. Haien istorioak entzun ditugu, bai.

6 Sakandarrok badakigu enpresaren historiaren berri?

E. Guk historiaren zati bat izan dezakegu, eta kanpokoek izkinak. Dokumentala ez da enpresakoendako bakarrik, herri guztiari zabalduakoa baizik. Sakana Group kooperatiba bat izanik, jende askoren bulkadarekin egin da. Herriari zabaldu beharra zegoela uste genuen. Uhartetik Urdaína bitarteko jende asko eta askoren lanari esker hau aurrera atera da. Gauzak ongi egiten diren enpresa erreferentea izan nahi dugu, jendea gustura senti daiteken leku bat, jendeak bere lana eta bere bizia gara dezakeen erreferente

bat izatea gustatuko litzaziguke.

7 Zergatik dokumentala eta ez liburua?

E. Bata eta bestea dira. Oraingoz dokumentala da, baina ez dago erabat bukatuta. Urtean zehar egiten ditugun ekintzekin osatuko dugu. Liburua udazkenean izanen da.

8 Zergatik izenburu hori?

A. Sortzaileek amets bat zuten: beraien lantegia sortzea. Burniarekin lan egiten bukatu zuten. Bi ideiak lotzen ditu.

9 Zeinek parte hartu du?

A. Sortzaileek eta hemen lanean gauden batzuk ere. Kameren aurrekoa nahiko zaila egin zaigu. Dokumentala egiteko

enpresa bat kontratatu dugu eta haiek ari dira arduratzen.

E. Aurkeztu dugunak 30 bat minutu irauten du. Garrantzitsuen erakutsitako testigantzak eta aurrera begirako mezuak dira. Ondoren egiten direnak gehitu nahiko genituzke.

10 Ospakizun egitaraua prest duzue?

E. Lakuntzako festetan herriari ekitaldi polit bat eskaini nahi dugu. Irailean familien eguna izanen dugu, jubilatu eta sortzaileekin beste ekitaldi bat eta lastaila hasieran instituzioei eskainitakoa, eta azaroan liburuaren aurkezpena.

11 Bitartean ohiko lana egiten?

A. Hala da, nahikoa lan. Ez da erraza.

BAZKIDETU

Izan giltzarri!

Hilabetean euro baten truke
Urteko bazkidetza 60€



Izena

Abizenak

NA/IFZ

Helbidea

Herria

Telefono zenbakia

Emaila

Bankuko kontu korronte zenbakia:

ES



Foru plaza 23,1 Altsasu 31800 (Nafarroa)
948 564 275 | 618 882 675
admin@guaixe.eus
www.guaixe.eus